

ELKARRIZKETA BIXENTE ELORZA, DANOK EUSKARA ELKARTEA

ARKO

# Arrasate

1999ko  
abenduak 17  
476. zenb.

P R E S S



ORAIN ETA HEMEN: GARAIA PROIEKTUA • KULTURA ELKARRIZKETA: OLARIAGA  
EUREN IKUSPUNTUTIK: BITTOR ARRIARAN • KIROL GAIA: PILOTA JAIALDIA




Mende barri-barri  
txarri-belarri  
daukanak  
ez daukanari  
kolkua bete  
madari!

Zuen zerbitzura



ARRASATEKO UDALA





*Mendean mendeko*

*2000 beteko*

*dakigun aldeko*

*ez gara aseko*

*bagara baziko*

*aldian aldiko*

*gaitezen betiko*

*Mendean mendeko*

*“Pilotalekuko ezkerreko horma ondo bukatu barik dago; lixatu-edo egin beharko lukete, bestela hatzamarrak ebakiko ditugu”.*

**Mauri Zubillaga**



**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

**ARRASATE PRESS**  
**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11, Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net  
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitatea:** Nerea Zallo Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroabe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Administrazioa:** Maite Urriolabeitia (Tel.: 943 71 23 90). **Diseinua:** Maddi Truxuelo. **Asteburuetako berriemakilea:** Monika Belastegi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, Iker Barandiaran, Kamelele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko konartzatua.** **Inprimategia:** Ger-tu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzunik zuzenik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azala:** Mikel Arroabe

**1.250**

**lanpostu sortuko ditu MCCk Debagoienean**

Garaia proiektuari esker izango da hori. Olandixon zabaldu-tako 400.000 m<sup>2</sup>tan, 20 ikerketa zentro eratuko ditu. 500 lagun arituko dira lanean. Bide batez, MCCren ikerketa zentroetan 200 lagun gehiago hasiko dira lanean eta MUK 200 irakasle berri kontratatuko ditu.

ITURRI ONETIK

**Egoitza berria elkarte bati**

Entzefalo-traumatismoa eta Burmuinetako Kalteak dituztenen Elkarteak bulego bat irekiko du Arrasaten. Elkarte honek Donostian dauka egoitza, baina kalte-tuen familiartekoek eskatuta, Arrasaten ere beste egoitza bat irekiko dute. Helburua da gaixo hauei lagun-garri izan dakiekeen entretenimendurako toki bat pres-tatzea. Eta bide batez, arazo berbera dutenek euren esperientziak elkartrukatzeko aukera izan dezatela.

Egoitza IMI zegoen lekuan izango dute, Arrasate Pasealekuan. Egunero egongo da zabalik, arratsaldeko 15:00etatik 19:00etara. Larunbatean bertan ireki-ko da, eguerdian.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza



# 17

ostirala

■ ZINEA

*Asterix y Obelix*, Alai zineman, 19:00 eta 22:00.

■ MARGO ERAKUSKETA

Antton Olariagak bere lanen erakusketa irekiko du Monterronen. 19:00.

■ GABON KONTZERTUA

Arrasate Musikalek Gabonetako kontzertua eskainiko du, Amaia antzokian. 19:00.

■ JAM ARETOAN

*Sin City Six, The Meows* eta *Teen Dogs* taldeek kontzertua eskainiko dute Bergarako Jam aretoan. 22:30.

**ZUZENKETA**

Joan den astean Udalak 2.929.000 pta gastatuko zituela esan genizuen pilotalekuaren inaugurazioan. Horri, ordea, sarreraren salmentatik ateratzen dena kendu behar zaio.

# 18

larunbata

■ ZINEA

*Asterix y Obelix*, 17:00, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ PALA TXAPELKETA

Musakolako kiroldegian Udazkeneko I. Pala txapelketa jokatu da. 10:00.

■ SANTAMAS PILOTA TXAPELKETA

Santamasetako XX. Pilota Txapelketa jokatu da Uarkape Udal Pilotalekuan. 16:00.

■ KALE ANTZERKIA

Kukubiltxo taldeak "Kukubel" antzezlan eskainiko du herriko plazan. 17:00. (Eguraldi txarra eginez gero, Gazteluondon).

■ BERTSO SAIOA

Lizaso, Jon Sarasua, Irazu, Sorozabal eta Gorostidi arituko dira bertsoan, Amaia antzokian. Gai jartzailea Ainhoa Agirrezaldegi. 22:00.

# 19

igandea

■ ZINEA

*Asterix y Obelix*, 17:00, 19:30, eta 22:00, Alai zineman.

■ XAKE TXAPELKETA

Santamasetako XI. Xake Txapelketa jokatu da Corazon de Encina zentroan. 10:00.

■ HERRI KROSA

Santamasetako XXI. Herri Krosa jokatu da Portaloian. 12:00. Umeak 10:30ean hasiko dira.

■ DANTZA SUELTOKO TXAPELKETA

Binakako fandago eta arin-arin txapelketa, herriko plazan. 18:00.

■ CARMINA BURANA MUSIKA EMANALDIA

SUDC elkarteak antolatuta, Goikobalu eta Arrasate Musikaleko Perkusio Taldeak Carmina Burana lana eskainiko dute, Amaia antzokian. 20:00.

# 20

astelehena

■ ZINEA

*Asterix y Obelix*, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

# 21

asteartea

■ ZINEA

*Asterix y Obelix*, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ LIBURU ETA DISKO AZOKA

Euskal Liburu eta Disko azoka irekiko da Seber Altube plazan. 17:30. (Abenduaren 24a arte zabalik).

■ TXISTU KONTZERTUA

Arrasate Musikaleko Txistulari bandak kontzertua eskainiko du udaletxean. 19:00. Arrasateko Erraldoi eta Kili-kien kalejira. 19:00.

■ TXERRIAREN AURKEZPENA

Pinporta txerriaren aurkezpena eta txartelen salmenta egingo da, Portaloian. 19:00.

■ KALEJIRA

*Incansables* fanfarrearen kalejira. 19:30.

■ PILOTALEKUAREN INAUGURAZIOA

Inaugurazio ekitaldia. 22:00.



URTEURRENA

◻ ◻

**LOREA  
ASTONDOA ALTUNA**

1975-10-7  
1998-12-21

*"Mundua lore bat da,  
eman ta zabal zazu"*

Bere omenez meza emango da abenduaren 19an, igandean, eguerdiko 12:00etan, Aramaioko Barajuen auzoko elizan.





■ **DANTZALDIA**

Izotz musika taldeak dantzaldia eskainiko du herriko plazan. 23:00.

■ **ZEZEN SUZKOA**

Zezen suzkoa aterako da herriko plazan. 24:00.

# 22

## asteazkena

■ **ZINEA**

*Asterix y Obelix*, 17:00, 19:30, eta 22:00, Alai zinemán.

■ **DIANA**

Arrasateko dultzainero eta txistulariekin. 09:30.

■ **SANTAMAS AZOKA**

Fruitu eta barazki azoka eta lehiaketa, Biteri aparkalekuan. 10:00. Eskuz egindako gazten lehiaketa eta hegaztien erakusketa, azoka plazan. 10:00. Ganadu feria Laubide plazan. 10:00. Eskulangileak Jokin Zaitegi plazan. 10:30. Sari banaketa, Biteri plazan, 11:30.

■ **KALEJIRA**

Arrasateko txistulari, dultzainero, Txikitxu Arrostitz eta Lore Gazteak dantza taldeek, trikitilariak, Iturengo Ttuntturroak eta Incansables fanfarrearen kalejira. 11:30. Arrostitz dantza taldeak dantza saioa eskainiko du herriko plazan, 12:30.

■ **HERRI KIROLAK**

Aizkolari eta harrijasotzaileak Zaldibarren, 12:30.

■ **HARITZAREN LANDATZEA**

Arrasateko Udalak Uda-biltzarekin bat egin zuela gogoratzeko, haritz bat landatuko du Laubide plazan. 13:00. Trikitilari saioa egingo da herriko plazan. 13:00.

■ **TXERRI DANTZA**

Lore Gazteak dantza taldeak dantza saioa eskainiko du herriko plazan. 13:30. Txerri dantza, 14:00.

■ **HERRI BAZKARIA**

Uarkape Udal Pilotalekuan, 14:30. Bazkalostean omenaldia egingo zaio Antton Olariagari. Txartelak salgai AEDn, Hire liburu dendan, Biona eta Monte tabernetan (1.500 pta).

■ **KALE ANTZERKIA**

Hortzmuga taldeak "Sportzis" kale antzerkia eskainiko du, herriko plazan. 17:30.

■ **BERTSO SAIOA**

Andoni Egañak eta Unai Iturriagak balkoi bertso saioa eskainiko dute, herriko plazan. 19:00. Herriko dantza taldeek Txerri eta Larrain dantzak eskainiko dituzte, herriko plazan. 19:30.

■ **DANTZALDIA**

Irailerako 6 musika taldean dantzaldia eskainiko du, herriko plazan. 23:00.

■ **TXERRI ZOZKETA**

Santamasetako txerri zozketa, herriko plazan. 24:00.

# 23

## osteguna

■ **ZINEA**

*Asterix y Obelix*, Alai zinemán, 19:00 eta 21:30.

■ **LOQUILLOREN KONTZERTUA**

Loquillo y Los Trogloditas taldeak kontzertua eskainiko du Bergarako Jam aretoan. Sarrera, 2.000 pta. 22:30.

# 24

## ostirala

■ **TXORONPIO ETA TXORONPIA**

Olentzeroren eskutitzak jasotzera aterako dira Txorontpio eta Txorontpia, herriko kaleetan zehar. 12:00.

■ **OLENTZEROREN IRTEERA**

Olentzero menditik jaitsiko da Zaldibarrera. 18:00. Olentzeroren agurra herriko plazan, Mutil dantza eta Herri dantzarekin batera. 19:30.



Ondo pasa jaiak!  
Santamas eta Gabonetan zabalik

**LARRINETXE Taberna**

Udala auzoa  
943 79 22 15

# BOLIÑETE

OILASKO ERRETEGIA  
Bertan jateko edo eramateko.

**Jai zorionsuak izan**

Zarugalde, 24 • ARRASATE • Tel.: 943 79 39 91

# TTUKUN

Fotokopiak  
Liburu josteak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

# NAROKI

LIBURUDENDA

Portzelanazko panpinak  
Jostailuak  
Era guztietako opariak

# NAROKI

BITXITEGIA

Oparirik  
distiratsuenak

# SUSI

ILE APAINDEGIA

- Astelehenetik ostegunera: 12:00 - 19:00
- Ostiralean: 09:00 - 19:00
- Larunbatetan: 08:00 - 12:00

Garibai, 3 bis • Tel.: 943 79 50 27



# Santamasetako azokara joateko ohiturarik bai?

Abenduaren 22an egingo da Santamasetako azoka



**Iñaki Larrañaga**  
(84 urte)  
Erretiratua

Bai. Jenero merke eta ona ikusten baldin badugu, erosi ere egiten dugu.



**Marina Padilla**  
(82 urte)  
Erretiratua

Ohitura dugu bai. Eztia eta osterantzekoak ere erosten ditugu. Ikusi egin behar, gauza asko egiten da eta.



**Maria Etxebarria**  
(80 urte)  
Erretiratua

Ez dut ohiturarik. Azokara joaten naiz, baina Santamasetan direlako aitzakiarekin ez. Bestela.



**Aurora Ruiz**  
(36 urte)  
Etxeoandrea

Joaten naiz. Gaztaia eta babarrunak erosten ditut; gehiagorik ez, garestia izaten da eta.



**Rebeka Uribarren**  
(30 urte)  
Langilea

Atsegin dut eta aukerarik izanez gero, joaten naiz. Sagar-doa eta gazta piska bat erosi izan ditut. Abereak eta beste-lakoak batzuetan ikusi ere ez.



**Daniel Anderas**  
(91 urte)  
Erretiratua

Atsegin izaten ditut horrelako azokak, gustura ibiltzen naiz posturik postu.



**Jose Bengoa**  
(68 urte)  
Erretiratua

Gora eta behera ibiltzen naiz. "Ferixia" esaten zenean ere joaten nintzen. Gaztaia eta eztia erosten ditut eta Gabon Zaharretan Elgoibarren, berriz.



**Jose Mari A. Lopez**  
(58 urte)  
Erretiratua

Atsegin dut eta txerria ikusteri ere joaten naiz. Erosi ez dut egiten. Txistorra jan eta txikito bat hartzen dut.

Lore

- Lurrindegia • Kabina •
- Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • ARRASATE Tel.: 943 79 52 50

**ORTO + LAGUN**

O R T O P E D I A

Ondo pasau  
Santamas eguna!!

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34



# Loramendi kirolak

Eskiak + fijazioak: 24.995 pta.

Salomon botak: 16.995 pta.

*Elurak zorutzen gaitu!!*

*Eskiak konpontzen ditugu*

## NEREA

Erdiko kale, 28  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 43

Santamas eta Gabon  
jai zoriontsuak!



# 2000



Jai zoriontsuak!



## MECA

**Arrasate:** Orokorra 943 71 24 72 • Salmentak 943 71 21 67 • Tailerra 943 71 21 54 • Biltegia 943 71 21 71  
**Bergara:** 943 76 40 68 • **Tolosa:** 943 65 28 43



# ARIANE

Barrutik dotore  
jazteko ARIANEn  
duzu aukerarik  
zabalena

*Gabon  
zoriontsuak  
eta  
Urte berri on!*

Erdiko Kale, 14  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 27 33





## Aparkaleku bila

Mondragoeko Udala aparkaleku bila dabil. Herrian dagoen eskari handiari erantzun nahi dio. 350 aparkaleku berri sortu nahi ditu. Horretarako Jose Mari Urizar "Ametzu", Zerbitzu batzordeko zinegotziak adierazi digunez, auzoz-auzo ari dira aparkalekuak nondik atera aztertzen.

Eta dagoeneko ari dira emaitzak jasotzen. Erdialde inguruan, adibidez, Otalora Lizentziatua kalean, orain erdian dagoen petrila kendu egingo litzateke eta hor aparkalekuak egin.

Bizkaia Etorbidean ere badago aparkaleku gutxi

batzuk lortzeko aukera. Muxibar biribilaren aurrean dagoen espaloia estutuz gero.

San Andres auzoan, berriz, Dr. Bañez kalean dauden lorategiak txikituz gero, ere lortuko lirateke aparkalekuak. Auzo bereko Araba Etorbidean, berriz, errepidea estutzeko asmoa dago. Hor ere aparkaleku berriak egiteko tokia lortuko litzateke.

### OBENERREKA ARAZO

Herriko beste aldean, Obenerreka inguruan, hain zuzen ere, ez da hain erraza dagoen aparkaleku eskaria betetzea. Aparkaleku berriak egin arren, faltan egongo dira. Gauza bera gertatzen da Galizia, Doneztebe eta inguruko kaleetan. Kasu hauetan, irtenbide egokiena lur azpiko garajeak egitea litzateke, udalaren ustez, baina horretarako ez dago behar adina dirurik.

Mondragoen 11.000 automobil inguru dabilta. Familia askotan bi edo hiru egoten dira. Hori ikusita, Jose Mari Urizarren esanetan, jendeak ahalagin gehiago egin beharko luke garaje pribatuak erosten.

### APARKALEKU BERRIAK

**Otalora kalean:** 78 berri.

**Bizkaia Etorbidean:** 16 berri.

**Erguin kalean:** 10 berri.

**Dr. Bañez kalean:** 15 berri.

**Obenerreka inguruan:** 125 aparkaleku berri.

**Araba Etorbidean:** zehazteke

**Agerre inguruan:** guztira, 266 aparkaleku.

## Iturri gorri iturria

Arrasateko Udalak Excavaciones Arrasate enpresari adjudikatu dizkio Gesalibar auzoko Iturri gorri iturria berreskuratzeko lanak.

Guztira, 3,5 milioi pezeta pasatxo aurreikusi dira lan hauek egiteko. Lanok datorren hilean has daitezkeela adierazi digute udaletxetik.

## Istripua

Abenduaren 10ean Mondragoeko E. A. 31 urteko emakumea Bergaran izan zuen auto istripu batean hil zen. 16:30ak aldera autobus batek aurrez-aurre jo zuen. Gaztea autoan harrapatuta geratu zen 40 minutuz, suhiltzaileek atera arte. Eskualdeko Ospitale-ara heldu bezain laster hil zen.

## Akordeoilari bikainak



Sergei Voitenko errusiarak irabazi du aurtengo Nazioarteko Akordeoi lehiaketa. Bigarren saria, Dominique Emorine frantsesak eraman du eta hirugarrena, berriz, Vladimir Blagojevic jugoslaviarrak.

Gipuzkoako XX. Akordeoi lehiaketa ere bukatu zen. Haur mailako lehenengo saria Xabier Lizarragak eskuratu zuen; gazte mailakoa Oroitz Maizek eta seniorretakoa, berriz, Edurne Gartzia.




# SIKOL

**Gabon hauetan  
oparirik erosoan  
eta ederrenak egiteko,  
Sikol-en duzu aukera.**

**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!**

Olarte, 31 • ARRASATE • TEL.: 943 79 89 32





# MCCren Garaia proiektuak goi mailako 1.250 lanpostu

Mondragon Kooperatiba Korporazioak Garaia izeneko proiektua aurkeztu zuen astelehenean, Gipuzkoako Foru Aldundian. Aurkezpenean Antonio Cancelo eta Jabier Retegi izan ziren Roman Sudupe aldun nagusia eta Jose Ramon Beloki Ekonomia diputatua egon ziren. Debagoienean eragingo du, baina bereziki Arrasaten.

Olandixoren maldan 400.000 m<sup>2</sup> erabiliko dira ikerketa-gune bat egiteko. Hortxe sare bat sortuko da, ikertegien, unibertsitatearen eta enpresen premiari uztartzeko. Ardurdunek azaldu dutenez, gunearen jarduera nagusia ikerkuntza izango da, ez produkzioa. Kualifikazio handiko 1.250 lanpostu sortuko ditu.

Datozen zortzi urteetan Olandixoko maldak guztiz aldatuko dira. Lur haietan ikerkuntzarako 20 zentro egingo dira eta hor 500 ikertzaile arituko dira lanean enpresen premiari begira.

Guztira goi mailako 1.250 lanpostu sortuko dira, gehienak ikertzaileak, aholkulariak eta irakasleak. Honek aldaketa sakonak eragingo ditu gaur



Ezkerretik eskuinera, Jose Ramon Beloki, Roman Sudupe, Antonio Cancelo eta Jabier Retegi.

egungo ikertegietan eta baita Mondragon Unibertsitatean ere, izan ere ia 5.000 ikasle izatera iritsiko da. Egia esatera, aldaketak korporazio oso-

an izango dute eragina.

Inbertsio handiak behar-ko dira proiektu hau egiteko. Hasteko, 5.000 milioi pta, baina azkenerako kopuru hori

lau aldiz hazi daiteke. Gipuzkoako Foru Aldundiak dagoeneko esan du 1.350 milioi emango dituela datozen hiru urteetarako. Baina enpresa

## Garaia zenbakietan

- Ikerketa-gunea Olandixon, 400.000 m<sup>2</sup> lurretan.
- Hasierako inbertsioa 5.000 milioi pta.
- Ikerkuntzako 20 zentro. 500 langile.
- MCCren ikertegiek (Ikerlan, Ideko eta MTC) 200 ikertzaile gehiago hartuko dituzte.
- MUK 200 irakasle berri, 2. eta 3. zikloetan. 200 ikasle- lek doktoradutza ikasketak egin ditzaten diru-poltsa.
- 150 langile gehiago MCCren aholkularitzako enpresetan.
- MU 4.800 izatera pasatuko da. Heziketa Iraunkorrekoak, 2.000 .

Zubizaneta



GALERIA 44

Gabonetako oparirik onenak

Zerkaosteta, 8 Tel.: 943 79 90 50 • ARRASATE



Aupa arrasatearrak!  
Aupa Santamasak!



# osortuko ditu

pribatuek eta bestelako erakundeek ere jarriko dute dirua. MCCko ordezkariak proiektuaren berri ematen ari dira bai herri erakundeetan eta baita enpresetan ere. Beraz, uste izatekoa da finantziazioa ere iritsiko dela, behar ahala.

Garaia proiektuak hiru zutabe izango ditu: MCCren Zientzia eta Teknologia Plana, Mondragon Unibertsitatea eta EZTAL.

Azken honen barruan Ikerlan, Ideko eta MTC ikertegiak daude, Ingeniaritza eta Aholkularitzako sei enpresa eta Otorala.

MCCko arduradunek adierazi dutenez, ikerketa-gune honek ez du zerikusi handirik izango Euskal Autonomia Erkidegoan dauden teknologia-guneekin: "Zamudion, Donostian edo Gasteizen dauden guneetan batez ere produzitu egiten da", esan zuen Jabier Retegik ATBn, "hemen, berriz, ikerkuntza baino ez da egingo".

Garaia proiektuak oihartzun handia izan du hedabide guztietan. Askok, gainera, eredugarritzat jo dute.

# Presoen aldeko deialdia



Datorren domekan euskal presoen aldeko kale agerraldia egingo da Mondragoen, Euskal Presoak Euskal Herri-raloarekin, Debagoieneko herrietan euskal presoen alde lanean diharduten talde guztien artean egin dute deialdia. Izan ere, aspaldian ari dira elkarlana bultzatu guran bilerak egiten. Igandekoa, beraz, bilera hauen ondorio-etako bat da.

Debagoieneko udal askoren laguntza jasoko du dato-

rren igandeko kale agerraldiak, gainera. Oraingoan, hiru herrirena kenduta, Debagoieneko beste herri guztietako udaletatik baietza jaso da. Kale agerraldiaren helburua da presoen eskubideak errespeta daitezzen. Horregatik, deia egin zaie herritarrei, kale agerraldira irten daitezzen.

Aurrera begira, Debagoieneko talde honek bilerak eta ekintza bateratuak egiten segitzeko asmoa duela iragarri du.

## Ikasleak ere kalera

Ikasle Presoen Aldeko Batzordeak deituta, Mondragoeko hainbat ikaslek kale agerraldia egin zuten asteazkenean. Gose greba muga-

gabean dauden presoekiko elkartzuna adieraztea eta presoen eskubideak aldarrikatzea izan zen agerraldiaren helburua.

# Neska-mutikoentzako jolasak

Udaleko Emakume batzordeak koaderno bana emango die eskoletako lehen hezkuntzako neska-mutiko guztiei, Gabon jaien bezperan jostailu ez sexistak bultzatzeko.

Koadernoen irudiak eta mezua neska-mutikoak elkarrekin jolas daitezzen aldekoak dira. Guztira, 1.100 koaderno banatuko dira.

## Harrobiari ez

Udalak horrela erabakita, San Josepe harrobiak ezingo ditu udal lurrak erabili bere lanak egiteko. Horren ordez, udalak proposatu dio harrobiaren ondotik pasatuko den Eibar-Gasteiz autobidearen lanak aprobeitza ditzala handik harria ateratzeko.

Horrekin batera, harrobi-ko arduradunei berriz gogorarazi zaie ingurune hura berreskuratu egin behar dutela, gerora begira han pabilioi industrialak jartzeko asmoa dago eta.

**Myle apaindegia**

- Gizon eta emakumezkoentzako ile apaindegia
- Mozketa eta kolore joera berriak
- Txanda aurrez eskatu

Alfonso X Jakintsua, 1 behea (Grupo San Juan) • Tel.: 943 79 79 65

**Alai**

Gozakidenda  
Aldizhariak

Otorala Lizentziatua, 2  
Tel.: 943 79 69 34

**Mari Jose**

Gora Santamasak!

**OINETAKOAK**

Erdiko kale, 20 • ARRASATE  
Tel.: 943 - 79 22 98



USTEAK USTE

*Ez gaude denok*

**A**urreko batean saiatu nintzen Olaragiak aurtengo Santamase-tarako egin duen hormirudian "Ez gaude denok" esaldia aurkitzen, afixa egin duen guztietan erabili baitu. Kostata, baina aurkitu nuen.

Nik ere euskal presoak gogorarazi nahi ditut lerro hauetan, Arrasatekoak bereziki, baina baita gainerako guztiak ere.

ETAk su etena hautsi zuela iragarri eta gero, euskal presoak hortxe geratu dira, zeudene-tan, ez aurrera ez atzera.

Nik ez dut ETArrik nahi. Euskal Herri aske eta irekia nahi dut eta hori lortzeko ez dut indarkeriarik nahi. Baina hori lortzeko ezinbesteko iruditzen zait euskal presoak geurera ekartzea, etxera, denon artean jarrai dezagun herri hau eraikitzen, Baionatik hasi eta Tuteraraino, Lizarratik eta Ermuraino.

Jai hauetan konpromiso bat dugu euskal presoekin. Ondo pasau. Eta gogoan izan: ez gaude denok.

Joxe Aranzabal



Aitor Zabaleta

\* Bittor Arriaran

**Z**aila da gai baten inguruan hitz egitea batzuetan. Aitor Zabaletaren kasuaren inguruan, esate baterako, zeresanik gabe gelditzeko beldurra sentitu gabe edo askotan entzundako gai batekin jendea nazkatu gabe.

Baina kasu honetan uste dut esandako guztia gutxi dela, eta, gainera, oso garrantzitsua da gizarteak garbi edukitzea hemen denok dugula zerbait jokoan: pertsona eta herri gisa askatasunerako dugun eskubidea.

Bada denbora tarte bat faxismorako joera duten taldeak ugaltzen ari direna. Beldurra sortzen, erailtzen eta gizartea mehatxatzen dute talde horiek, legean eta ordenuan oinarritutako beren ideia diktatorial, arrazista eta xenofoboak erabiliz. Eta auzi honetan denok dugu zerbait esateko.

Aitor Zabaleta euskaldun izateagatik hil zuten, eta horrek guztioi pentsarazi behar digu. Era berean, pentsatzera bultzatu behar gaitu zorigaitzoko egun har-

tan gailendu zen inpunitateak, eta estatu espainiarrean agintzen dutenek erakutsi duten interesgabeziak eta utzikeriak, eta Espainiako justiziak (nolabait deitzeagatik) gisa honetako nazionalista espainiarrak ikertzeko orduan jendearengan pizten duen ardurak. Bizi garen herrialde honetan ongi asko dakigu afera horiek hemen gertatuz gero, gauzak beste modu batera eramango lirartekeela; inputatu gehiago egongo lirarteke eta seguraski gure gizarteko sektore jakin baten aurka sekulako kanpaina egingo litzateke.

Gizarteak, eta batez ere justizia espainiarrak, erron-

“ Denok dugu zerbait jokoan: pertsona eta herri gisa askatasunerako dugun eskubidea ”

ka handia du Aitor Zabaletaren auzian.

Justiziak erantzun argia eta indartsua eman behar digu talde faxista hauen inguruan. Horrela Hitler eta Francoren nostalgiko hauei beren katakonbetatik irtetea eragotziko diegu, eta baita herri eta gizarte honek oro har gogoan dituen iraganeko garaietara eramatea.

Talde hauei mugak jarri behar dizkiegu nazismora, xenofobiara eta bide ertzeko erailketetara buelta ez gaitzen, euren gisa ez pentsatzegatik.

Iker ditzatela babesten eta finantzatzen dituztenak, eta epai eta zigor ditzatela. Eta euskaldun ororen aurka jotzen duten pertsona publiko horiek kontuan izan dezatela espainiar abertzaleek (badaude eta, ez bakarrik euskaldunak) nola erabiltzen dituzten euren kanpainak eta berbajariora.

Aitorrekin justizia egitea herri honekin justizia egitea da, eta baita gizarte guztia-rekin ere. Ez dezagun ahantz, hortxe baitago faxista gabeko gizarte justu eta askeagoa, faxista horiek arrazoi eta gizakiarentzat arrisksuak dira eta.

\* Errealeko taldeen bozeramailea

**P**ando  
ERROTULOAK  
Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre Pabilioia)  
Tel. / Faxe: 943 79 79 70

**UGARAN**  
jatetxea  
Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**M**  
**MEMESA**  
Industria hornidurak  
Tel. 943 71 24 25



# Ehune

Apainketa



Leku-barrixen  
lehenguek gaittuzue  
zuei esker aurrerutz goiez

Garibai, 8

Tel: 943 77 11 48

ARRASATE



# 50 urtetik gorako esperientziak KALITATEA OSOA eskaintzera bultzatzen gaitu.



Camper, Dr.  
Marten's  
Panama Jack  
Nature  
Hispanitas  
Ellos  
Escaleno

Koll Flex  
Lottusse  
Pons Quintana  
Ferrerias  
Romika  
Mephisto



C B

beatriz

Erdiko kale, 11 ARRASATE Tfnoa: 79 14 33





## ZORIONAK!!!

Jose Mari Oiangurenek eta Maria Eugenia Urrozek zilarrezko ezteiak beteko dituzte abenduaren 18an. Bazkari ederra egingo dute ospatzeko eta, ondoren, bidaiatzera. Senide guztien partetik, zorionak bikote!!!

## KIROLAK BATUTAKO LAGUNAK

Oñatiko Aloñamendi kirol elkarteak 50 urte bete dituela eta, bazkaria egin zen larunbatean. 250 lagunetik gora bildu ziren ospakizunean, 1949. urtean Aloña sortu zenetik gaur egun arte kirol elkarte honekin harreman zuzena izan duten kideak. Izango zuten, bai, zer kontaturik!!!



## GABON ZORIONTSUAK IGARO!



Zarugalde. 35 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 38 38

## LAN ESKAINTZAK

Arrasateko Udalak aldi baterako zerbitzuak betetzeko lan-poltsa hau osatu nahi du:

### Udaltzainen lan-poltsa

Oinarriak: Udaletxean jaso daitezke.

Eskaera aurkezteko epea: 99-12-30era arte, berau barne.



ARRASATEKO UDALA


Pertsonal Saila ■





## MONDRAGOE, KOLONBIA ETA INDIAREKIN

Zerbait berezia du Harreman taldeak frantziskotarretan jarri duen azokan. Astebeteren ostean, produktu gehiago ekarri behar izan zuten, elkartasunerako denda erdi hutsik geratzen ari baitzen. Batutako dirua Kolonbiako San Clemente herriari laguntzeko bidaliko da



Arrasateko Aikido taldeak ere izan du elkartasunerako astirik. Indiako Gujerat herriari laguntzeko arte martzialen ikuskizuna antolatu zuen asteburuan. Gerrarako barik, kirol hauek bakea eta ongizatea zabaltzeko balio dutela erakutsi nahi izan dute. Bravo!

## NONDIK NORA HAINBESTE ZABOR!!!

Jakin bagenekien gure herri honetan zaborrak kaleak itsusitzen dituela, baina irudi hau ikusita, hori baino gehiago dela dirudi. Udala arazo hau konpontzeko lanean dabil. Bitartean herritarrok kontu apur batekin ibili beharko gara. Hain herri polita izanda, horren irudi zikina ematea...



**PUB HAIZEA**



- Ordenagailuak
- Inprimagailuak
- Konponketak
- Eguneratzeak
- Osagarriak
- Internet

Okendo, 1 • Tel./Faxa: 943 77 16 68  
E-Mail: microsinformatica@jet.es



### ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK

Basabe Industrialdea 4, EQ- 11 • ARETXABAETA  
Tel/fax. 943 79 01 51 • Mugikorra (908) 77 28 67 • Partikularra 943 79 74 26



Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behea  
Tel.: 943 79 79 46 • ARRASATE





# Oporrak hartzeko prest

Asteburu hau izango da Arrasate Kirol Proiektuan ari diren neska-mutikoen aurten goazken norgehiagoka eguna. Gabonetako oporrak hartuko dituzte milurteko berrira arte. Hori dela eta, AKPko koordinatzaileekin aritu gara berbetan, orain artean zertan ari diren jakin nahian.

— Zer nolako balorazioa egiten duzue hilabete hauen gainean?

— Balorazioa baikorra da. Partaidetzari dagokionez, oro-

korrean polito igo dela esan behar dugu. Osatu den talde kopurua ere aipagarria da maila guztietan, eta asteburuetako ekintzetan dagoen parte-hartzea ona da.

— Zein ekintza duzue oraintxe abian?

— Betiko martxan gabil-tza, ohiko ekintzak aurrera doaz: psikomotrizitate, aurrekirol eta multikirolean, asteburuetako ekintzak barne. Hauetan psikomotrizitateko ekintza bereziak aipatu nahi

genituzke, bai igerilekuko ekintza baita altxor bilatzekoa ere. Bestalde, infantiletan futboleko sei talde eta saskibaloiko lau dauzkagu bailarako txapelketan. Foru Aldundiak bultzatutako saskibaloiko eta futboleko teknifikazio programa bereziak ere abiatu ditugu.

Oso harrera ona izan du, baita, aerobik taldeak. Pilota, tenis, igeriketa eta atletismoa ere egiten ditugu eta udaberrian txirindularitzarekin hasi-gara.

— Bakarkako kirol hauetan, infantilak bakarrik ari dira?

— Igeriketan, pilotan, atletismoan eta tenisean multikiroleko taldeetan dabilzan ikasleei aukera ematen diegu kirol hauetan trebatzeko.

— Bestelako ekintzarik?

— Mendi irteerak ere egiten ditugu, ikastetxeetako ikasle eta guraso guztiei zabaldu-ta. Orain arte partaidetza ona izan da eta giro ezin hobea.

## Taldez talde

### FUTBOLA INFANTILAK MUTILAK

	P	JP	I	B	G
Txantxiku	11	5	3	2	0
Almen	11	6	3	2	1
SFX	10	5	3	1	1
Kurtzebarri	9	4	3	0	1
La Merced	9	5	3	0	2
Aozarazta	4	5	1	1	3
Aranzadi	4	5	1	1	3
Ipintza DBH	3	6	0	3	3
Txantxiku 1B	2	5	0	2	3

### NESKAK

	P	JP	I	B	G
San Viator	15	5	5	0	0
Aranzadi A	10	5	3	1	1
SFX B	10	6	3	1	2
Almen	9	3	3	0	0
Torrebaso	9	5	3	0	2
SFX A	3	5	1	0	4
La Merced	3	5	1	0	4
Aranzadi B	1	3	0	1	2
Elgeta	1	4	0	1	3

### SASKIBALOA INFANTILAK MUTILAK

	P	JP	I	G
Aozaraza 2	6	3	3	0
San Viator	6	3	3	0
Mariaren Lagundia B	4	3	1	2
Arrasate B	3	2	1	1
Txantxiku DBH2B M	3	3	1	2
Arrasate A	2	2	0	2
Mariaren Lagundia A	2	2	0	2

### NESKAK

	P	JP	I	G
BHI Kurtzebarri	6	3	3	0
San Viator	4	2	2	0
Mariaren Lagundia	3	3	0	3
Almen	3	2	1	1
Aozaraza 2	2	2	0	2

P: puntuak • JP: jokaturako partidak • I: irabazitakoak • B: berdindutakoak • G: galdutakoak



San Viator A psikomotrizitatea.



SFX Uribarri multikirola.

## Asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA INFANTILAK NESKAK

San Viator Handi

10:30 San Viator - Almen

### MUTILAK

San Viator Handi

09:30 Arrasate B - San Viator

Ibarra

10:30 Kurtzebarri - SFX

San Viator Handi


11:30 Arrasate A -

Mariaren Lagundia A

### SASKIBALOI-KO BEHIN BETIKO SAILKAPENAK BENJAMINAK

1. Merced B
2. San Frantzisko Xabier D
3. Erguin B
4. San Frantzisko Xabier C
5. San Frantzisko Xabier E
6. San Frantzisko Xabier A
7. San Viator B
8. San Viator A
9. San Frantzisko Xabier B
10. Aramaio
11. San Frantzisko Xabier U
12. San Andres
13. Merced A
14. Musakola
15. Erguin A





Piiiiiiii!!!!!!

**P**enaltia Zaldibarren. Ze uste zenuen bada? Ez zegoela horrelakorik? Ba adi jokalaririk horrelakoak ere gertatzen dira eta, lehen mailan bezala. Argazkia Etxe Mobil eta Goma 2 taldeen arteko partidaren atera genuen.

## A ZE JIPOIA!

Hogei gol sartu zizkioten Bar Nuevo taldeari joan den aste-buruan. Aspaldiko partez ez zuen jasotzen talde batek horrelako gol zaparrada txapelketa horretan. Badirudi gogoz zelairatu zirela aurkariak, Xhass Ugarte taldekoak, 5 eta 20 ira-

bazi zuten eta. Arrazoia ez zen igandean jokatu zutela eta bixamona zutela, larunbatean jokatu zuten eta. Kontuak kontu, sekulako jipoia jaso zuten. Dena dela, sailkapenari begiraturaz gero, badira eurak baino aurkako gol gehiago dituztenak ere.

## LONTXO, LONTXO!

Oraindik ez omen dute ordaindu dirudik Lontxo Taberna taldekoek. Txapelketatik kanpo gelditu ziren hasiera hasieran eta badirudi ez ordaintzea erabaki dutela. Antolatzaileek, ordea, hortxe segitzen dute zor zaien dirua eskatzen. Eta

gogor ari dira, gainera. Bestela datorren urtean ez dutela txapelketan parte hartuko esan diete. Gainera, aurten Lontxo Tabernan aritu direnek ezin izango dute beste talde baten izenean jokatu txapelketa honetan. Atera kontuak.

**Txitxinpe**  
Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Otarateko hotz eta beroak  
Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

## EZARKI

### OINETAKO KONPONKETAK

Maalako Errebala, 8 • ARRASATE

## UGARTE

### Industria hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tel.: 943-79 83 96 / 943-79 23 00  
Faxa: 943-793412

## Umeen moda

Garibai, 6  
ARRASATE  
943 79 97 86

Ferrerias, 34  
ARRASATE  
943 79 86 50

Jai zoriontsuak izan!!


## Year

### oinetakoak

Biteri, 13  
Tel.: 943 79 21 71  
ARRASATE

Barrenkale, 9  
Tel.: 943 76 22 86  
BERGARA





denda berria!

# Lasagabaster

G A Z T E M O D A



Zerkaosteta, 7 • ARRASATE • Tel.: 943 79 86 14



**GURE PRODUKTUAK  
ARRASATEN SALGAI:**

Salegi Harategia  
Landaluze Harategia  
Agirre-Etxe Harategia  
Itsaski Arraindegia

# JAKIÖN

JAKION S.L. • San Miguel Plaza, 4 etxabea • 20530 Leitz Gatzaga  
• Gipuzkoa • Tel: 943 71 46 86 • Fax: 943 71 46 21



**GABON ZORIONTSUAK!**

# ZABALETA

**LYRRINDEGIA / OPARIAK**

Maisu Arano, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 12 32





## Emaizak

## A taldea

Betrayer 3 - Kobate Harrobia 7  
Irati STS 4 - Komando Alpargat 5  
Etxe Mober 3 - Goma Bi 9  
You Know 6 - Atxanta el Ret. 2  
Bar Nuevo 5 - Xhasss Ugarte 20  
Ume Zikinak 15 - Giraldilla Con. 2  
Fraguel Gol 4 - Orlando 8  
Saukelu Scream 4 - Sokoakoak 1  
AC Surkos 3 - Totem 4  
DA Iriztu 2 - Kanpanzar Harrobia 5

## B taldea

Sas T 1 - Kamasutra 5  
Branka Taberna 6 - KK Jaur. 4  
AKTA 1 - Garaje Oscar 1  
Timoftol SMD 3 - Aurrera Bolie 2  
Leya 8 - Makai 3  
Koka Juniors 3 - Potroak 2  
Etxerat Tab. 1 - Borrock & Roll 1  
IKP 4 - Aldibi 6  
Makanudos 2 - Dribling 7  
Alai Gozokiak 3 - Serengetti 4  
Txeyenex 9 - EPEH 7

## Saillkapenak

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
AT Lokala	5	5	0	0	26	8	10
Ume zikinak	5	4	1	0	44	20	9
K. Alpargat	5	4	1	0	23	14	9
Orlando	5	3	2	0	29	16	8
You Know	4	4	0	0	24	10	8
Kanpanzar Harrobia	5	3	1	1	26	11	7
Irati STS	5	3	0	2	34	18	6
Kobate DKB	5	3	0	2	24	22	6
Sau. Scream	5	3	0	2	31	11	6
AC Surkos	5	2	1	2	36	28	5
DA Iriztu	5	2	1	2	15	14	5
Xhasss Ugar.	4	2	0	2	32	29	4
Goma 2	5	2	0	3	26	22	4
Betrayer	5	2	0	3	25	22	4
Fraguel Gol	5	2	0	3	19	25	4
Sokoakoak	5	2	0	3	18	19	4
Totem	5	2	0	3	17	28	4
Etxe Mober	5	1	0	4	19	31	2
Giraldilla Con.	5	0	0	5	4	56	0
Atxanta el Ret.	5	0	1	4	8	40	1
Bar Nuevo	5	0	0	5	11	52	0
Lontxo Tab.	5	0	0	5	0	5	0

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
KJ Basati	5	5	0	0	39	22	10
Dribling	5	5	0	0	31	7	10
IKP	5	4	0	1	27	15	8
KK Jauraritzari	5	4	0	1	24	11	8
Timoftol SMD	5	3	1	1	28	15	7
Etxerat Tab.	5	3	1	1	25	13	7
Borrock & Roll	5	2	2	1	26	13	6
Txeyenex	5	3	0	2	18	22	6
Serengetti	5	3	0	2	14	18	6
Branka Taberna	5	2	1	2	30	24	5
Kamasutra	5	2	1	2	23	15	5
Aldibi	5	2	1	2	23	30	5
EPEH	5	2	0	3	28	27	4
Garaje Oscar	5	1	2	2	21	15	4
Leya	5	2	0	3	17	23	4
Aurrera Bolie	5	1	2	2	15	19	4
Makanudos	5	0	1	4	13	45	1
Alai Gozokiak	5	1	1	3	15	13	3
AKTA	5	1	1	3	15	13	3
Potroak	5	1	1	3	12	21	3
Sas T	5	0	1	4	10	29	1
Makai	5	0	0	5	19	52	0

## Hurrengo partidak / 6. jardunaldia

## abenduak 18, larunbata

## Zaldibar

08:50 Atxanta el Retorno - DA iriztu (AC Surkos)  
10:00 Goma 2 - AC Surkos (Atxanta el Retorno)  
11:00 Bar Nuevo - You Know (Goma Bi)  
12:00 Komando Alpargat - Betrayer (You Know)  
13:00 Borrock & Roll - Makanudos (Betrayer)  
14:00 Orlando Piratas - Saukelu Scream (Makanudos)  
15:00 AT Lokala - Fraguel Gol (Saukelu)  
16:00 Kobate DKB - Xhasss Ugarte (AT Lokala)  
17:00 Giraldilla Con. - Irati STS (Xhasss Ugarte)  
18:00 Garaje Oscar - Koka Juniors (Giraldilla Con.)  
19:00 Etxerat Taberna - KK Jauraritzari (Koka)

## Iturripe A

14:50 Kanpanzar - Etxe Mober (Serengetti)  
16:00 Serengetti - Sas T (Etxe Mober)  
17:00 IKP - Timoftol (Sas-T)

## Iturripe B

14:50 Aurrera Bolie - AKTA (Kamasutra)  
16:00 Kamasutra - Branka Tab. (AKTA)  
17:00 Alai Gozokiak - EPEH (Branka)

## abenduak 19, igandea

## Zaldibar

09:50 Dribling - Aldibi (Potroak)  
11:00 Potroak - Leya (Aldibi)  
12:00 Sokoakoak - Ume Zikinak (Leya)  
13:00 Makai - Txeyenex (Sokoakoak)

Atsedena: Txeyenex

**ARRASATE**  **KIROLAK**  
Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON



**UNZUETA**  
J A T E T X E A

Karta  
Menu bereziak  
Eguneko menua  
Plater konbinatuak

Zabola auzoa. ARAMAIO.  
Tel.: 945 44 50 95





# Santamasetako herri krosa

Abenduaren 19an, igandean, jokatuko da Santamas herri krosa. Aurtengoa 21. aldia du lasterketa honek.

Lasterketa bat baino gehiago egingo dira, urtero legez. Txikienak eguerdi partera hasiko dira, nagusien aurretik. Baina lehenengo lasterketa 10:30ean hasiko da.

Lagun arteko froga eguerdian hasiko da. Euren ibilbideak 6 km. izango ditu, Gaztetxoan probak, ordea, motzagoak izango dira.

Iaz eguraldi eskasa izan zuten korrikalariak eta iragarpen guztien arabera, badi-rudi igandean ere antzerakoa izango dutela.



## IRTEERA ORDUAK

10:30	.....	13-14 urtekoak	.....	800 m.
10:45	.....	11-12 urtekoak	.....	600 m.
11:00	.....	10 urtekoak	.....	400 m.
11:10	.....	9 urtekoak	.....	400 m.
11:20	.....	8 urtekoak	.....	175 m.
11:30	.....	7 urtekoak	.....	175 m.

# Karate txapelketa

Larunbatean Bergaran jokatuko da kadete eta junior mailako Euskal Herriko karate txapelketa, Labegaraietako kiroldegian. Saioa Karate Eskolatik, nesketan Sandra Alvarez, Garbiñe Tena eta Patricia Morales arituko dira. Mutilak, berriz, Ivan Galan, Jorge Sanchez, Maikel Talledo, Jon Alvarez eta Iker Zabarte izango dira. Guztiak ere kumitean dabilta.

Txapelketa 16:30ean hasiko da eta kata eta kumiteko probak jokatuko dira. Bergarako ordezkari bat ere arituko da: Mikel Arakistain, Gipuzkoako kadete mailako txapelduna.

## FUTBOLA Partida kaskarra



Galdu egin zuen nesken futbol taldeak larunbatean.

Urolaren aurka aritu ziren Atxabalpen eta 1 eta 4 galdu zuten. Mondraren gola Araitz Etxabek sartu zuen. Aste honetan Aurrera de Vitoriaren aurka jokatuko dute.

Lehen errejonaleko taldeak ere ez zuen irabazi, baina galdu ere ez. Bana berdindu zuen Allerruren aurka, Muruak sartutako gol bati esker. Penalti bat ere huts egin zuen Mondrak. Aste honetan derbia jokatuko da UDA eta Mondraren artean. Larunbatean, Aretxabaletan 16:00.

## ERRUGBIA Alde eta kontra



Gaszte mailako errugbilariek etxean jokatu zuten larunbatean.

Getxoko taldeak sekulako jipioa eman zion Arrasateri. Getxotarrak aurkari gogorak ziren eta, gainera, kopuruz ere etxeok baino gehiago izan ziren: Getxotik 21 lagun etorri ziren; Arrasatetik, berriz, 15. Azken emaitza 0 eta 50 izan zen.

Senior mailakoak, ordea, irabazi egin zuten Getxon: 5 eta 12. Gutxienez zortzi urte zeramatzaten horrelakorik egin barik eta azkenean lortu. Aste honetan Bilboko Universitario 15en aurka arituko dira.

## SASKIBALOA Oraingoa kale



Kenci Arrasate nesken taldeak ere etxean jokatu zuten asteburuan.

Musakolan Intxaurrendoko taldearen aurka neurtu ziren, baina galdu egin zuten. 25 eta 34 amaitu zen partida, 25. minutuan hamabina berdindu eta gero. Aste honetan Azkoitian arituko dira.

Seniorrek ere galdu egin zuten. Loiola Indautxuren aurka, 76 eta 68. Tirabira dextente izan zuten, bai aurkariekin eta baita epailearekin ere. Bost jokalarikaleratu zituen arbitroak. Larunbatean Ordiziarren aurka jokatuko du Kencik, Arrasaten. 18:00etan.

## ESKUBALOA Emaitza txarrak



Arrasate Almen taldeak galdu egin zuen Beasainen 16 eta 13.

Nahiko partida kaskarra egin zuten Balerdiren taldekoek. Igandean Donibaneren bisita izango dute eguerdian. 10:30ean, gaszte mailakoak arituko dira Legazpiren aurka.

## XAKEA Garaipen polita

San Andres Xake taldeak 1 eta 3 gailendu zuen Eibarko laukotea. Larunbatean Gros taldea izango dute aurrez aurre Arrasateko egoitzan, 16:00etatik aurrera.



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak**

Olarte kalea, 47 behe Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25




**Gabonetan  
aldatu  
zure orrazkera**

Kontzeziño, 4 behe  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 09



# Santamasetako girorik ederrena



## BRANKA TABERNA

Santamasak ondo pasa!  
Zarugalde 1 • Arrasate • Tel.: 943 79 21 13

## JAI ZALE TABERNA

- Ogitartekoak • Infusio naturalak eta...
  - Pintxoak
- MARTXA TOPATUKO DUZU!  
Olarte, 37 • Tel.: 943 79 67 92 • ARRASATE

## Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tel. 943 79 20 57

## KYMETZ

Kazuelatxoak,  
ogitartekoak eta  
pintxoak  
Maala, 15  
Tel.: 943 79 60 14  
ARRASATE

## RUMBA TABERNA

JAI ZORIONTSUAK IZAN!!

Iturriotz kalea  
ARRASATE • Tel.: 943 79 20 00

## ESKIÑA taberna

Zorionak eta ondo ibili Santamasetan!  
Olarte, 25 • ARRASATE • Tel.: 943 79 20 20

Aupa  
Santamasak!!

OKORETEGI

KAFETEGIA

## ETXERAT TABERNA

ZURGIN KANTOI, 5 • Tel.: 943 79 20 52 • ARRASATE

EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA!





# Luis Jabier Arrietaren margolanak Harresi aretoan

Luis Jabier Arrieta margolari arrasatearrak erakusketa irekiko du Harresi aretoan Santo Tomas egunean, abenduaren 21ean. Hogeita hamar bat margolan erakutsiko ditu guztira, olioan eginak eta lau talde nagusitan sailka daitezkeenak: erretratoak, izadi hilak, paisajeak eta itsasoko marinak. Dena den, Luis Jabierrek erretratoak eta izadi hilak ditu gustukoak: "baliteke paisajeak horrenbeste ez gustatzea jende gehiegik marrazten dituelako, edo jende ugari ikusi dudalako azken urteotan paisaje berberak egiten. Gainera, izadi hilak eta erretratoak hobeto irteten zaizkit".




Erakusketan ikusgai izango den margolanetako bat.

## BAKARKAKO

### LEHEN ERAKUSKETA

Luis Jabierrek hau du bakarkako lehen erakusketa. Taldekakoak, ordea, hamaika baino gehiago egin ditu dagoeneko. Horregatik ilusioz dago bakarkako lehenengo



Luis Jabier Arrieta.

erakusketa irekitzeko: "lan asko egin dut, eta erakutsiko dudanarekin pozik nago. Dena den, jendearen iritzia izango da epaile".

Klasikotzat definitzen du bere estiloa margolari arrasatearrak. Hiperrealismoaren mugan dago bere pintura eta inpresionismoak eraginda marrazkian eta kolorearen garbitasunean bilatzen du zehaztasuna.

### IBILBIDEA

Luis Jabierrek Bergarako pintura eskolan marraztu zituen lehenengo margolanak, 1990. urtean, nahiz eta marrazteko zaletasuna betidanik izan. Jon Balenziagak eman zizkion lehen eskola teoriko-praktikoak. 1991tik 1993ra bitarte-

an, berriz, Monterron kultura etxeko margo ikastaroetan izan zen. Imanol Moreno eta Cesar Cimiano izan zituen irakasle orduan. "Arrasate

Margo Taldea" sortu zuten gero hainbat lagunek, eta talde horren baitan jarraitzen du gaur egun ere, Luis Laskurain Bergarako irakaslearekin.

## Carmina Burana SUDCen 35. urteurrenean

Carmina Burana opera izango da Arrasaten abenduaren 19an, Amaia antzokian. 20:00etan izango da emanaldia, eta Arrasate Musika-kaleko Perkusio Taldeak eta Goikobalu abesbatzak eskuhartuko dute, Iñaki Maidagan arrasatearraren zuzendaritzapean. Ainhoa Garmendia sopranoak, David

Azurza kontratenoreak eta Iñigo Laboreria baritonoak ere hartuko dute parte. Pianoan, Isabella Blezien eta Rakel Murgiondo.

Sarrerak Zabaleta lurrindegian eta Monte eta Kajoi tabernetan daude salgai, 2.000 pezetan. Lehiatilan, berriz, 2.500 pezetaren truke eskuratu ahal izango dira.

## BAKAILO ETXEA



- Bakailaoa eta beroni buruzko produktuak
- ISLANDIAko bakailaoan espezializatuak
- Bakailao kazoletak prestatzen dira (bakailao gatzgabetua daukagu)

Mondragonés kalea, 7 (Azoka Plaza onduan) • Tel. 943 79 93 07

## "EDERTU"

Ile apaindegia • Solariuma • Depilazioa



Jai eta Gabon zoriontsuak igaro

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28 • ARRASATE





AMETSEZKO EGUNAK CITROËN-EN



420.000  
PTA. RAINOKO  
AURREZPENA

EZ DA AMETSA. BENETAKO AUKERA DA.

# Chapime

Santamas eta Gabon  
jai zorientsuak  
opa dizkizuegu



CITROËN

Araba Etorbidea z/g • ARRASATE

Tel.: 943 79 45 22 / 943 79 41 99 / 943 79 46 74 • Faxe: 943 77 10 47



*aste gazte*

■ **DIRU LAGUNTZAK**

• “Jose Migel Barandiaran Fundazioa”k antolatuta, arkeologia arloko ikerketa beka. Epea: abenduak 31.

• “ICO” Fundazioak graduatuondoko ikasketak egiteko diru laguntzak aurreikusi ditu, bai estatu espainiarrean bai atzerrian doktore ikasketak edo ikerkuntza egiteko. Epea: otsailak 28.

■ **LANA**

• Debabarreneko Mankomunitateko zerbitzuburuaren lanpostua betetzeko hautapen frogak egingo dira. Epea: abenduak 24.

■ **IKASTAROAK**

• Emakume Sailak eraturik, lan orientabide ikastaroa. Emakumeak lan esparrura hurbiltzeko asmoz antolatutako ikastaroa. Izen emateko epea: abenduak 21.

■ **LEHIAKETAK**

• Bilbao “Pop Rock” lehiaketa antolatu da aurten ere. Edozein taldek har dezake parte bi musika modalitateetan: pop-rock edo metal. Epea: abenduak 31.

• “Orereta Hiria” bideo lehiaketa, 16-35 urte bitartekoei zuzendua, gai librean, edozein hizkuntzatan eginikoak eta gehienez 30 minutuko luzerakoak. Epea: urtarrilak 14.

• “Pasaia Hiria” XII. olerki lehiaketa, 15 urtetik gorakoei zuzendua, lan original, argitaragabe eta saritugabekoak, euskaraz zein gaztelaniaz, gai librean eta gutxienez 200 bertso luze-raz. Epea: urtarrilak 21.

• AED elkarteak urteroko “Arrasate Lehiaketak” deitu ditu, komikia, euskara testigantza, irratireportajea, ipuina, poesia eta bertso-paper arloetan. Lanak aurkezteko epea: otsailak 11.

**Argibideak:**

**GAZTE ZERBITZUA**

☎ 943 77 00 65

ANTTON OLARIAGA (KOMIKIGILE ETA ILUSTRATZAILEA)

**“Txerria protagonista bihurtzea erabaki nuen”**

**1946an Usurbilen jaio zen Antton Olariaga eta gaur egun Astigarragan bizi da. Mende laurdena inguru da Santo Tomasarako lehen hormirudia egin zuela, eta aurten ere Zakilixut eta beste hainbat pertsonajeren aita den honek egin du.**

— **Noiz hasi zinen marrazten?**

— Gaztetxotatik gustuko nuen marraztea, eta irakurtzen nituen komikietatik gauzak kopiatzen saiatzen nintzen. Erti Ederrak ikasi nituen gero, lehenengo Valentzian eta gero Bilbon. Nire erronka hori izan zen: gustuko nuen lanbide batetik bizitzea.

— **Zein esparrutan aritu izan zara?**


— Liburu asko ilustratu ditut, haur literaturakoak nahiz helduen literatura-koak. Komikigintza eta ilustraziogintza uztartzea oso aukera polita da. Komikien kasuan marrazkiarekin eta hitzarekin egiten dut lan, eta ilustraziogintzak idazle on askorekin lan egiteko aukera ematen du.

— **Makina bat pertsonaje ere sortu dituzu dagoeneko.**

— Bai. Anaitasunan hasi nintzen kolaborazio lanetan, eta Kaleko izeneko pertsonajea sortu nuen. *Zeruko Argian* Hormasprayko zen protagonista. Horiek aspaldikoak dira, eta orduz geroztik asko sortu ditut. Dena den, Zakilixut izan da egunero kaleratu den lehenengo pertsonajea.

— **Nola erabakitzen da pertsonaje bakoitzaren itxura?**

— Pertsonajea agertuko den hedabideak asko mugatzen du. Pentsaren maiztasuna ere kontuan izan behar da, eta baita zuri-beltzean edo koloretan kaleratuko den ere. Kontuan izan behar da pertsonajea asko jota irakurlearen



eskuetan hamar segundotan egongo dela. Niri lerro sinpleekin egindako pertsonajea egitea bururatu zitzaidan, identifikatzeko erraza.

— **Komikigintzan ideiak nondik jasotzen dituzu?**

— Ideiak edozein lekutatik sortzen dira: kalean entzundakoetatik, irakurritakoetatik, irratitik... horiek koaderno batean apuntatu eta ondoren forma ematen diet.

— **Arrasateko Santamasetan urte luzez egin duzu hormirudia.**

— Bilbon nengoela, Arrasatetik etorri zitzaizkidan, 1975 edo 1976an. Urtero nik egin behar nuela finkatu zenean, txerria protagonista bihurtzea erabaki nuen. Zenbait urtetan beste batzuek egin dute, baina aurten ere nik marraztu dut hormirudia.

— **Abenduaren 17an erakusketa irekiko duzu.**

— Antton Abbadia saria eman zidatenean sortu zen erakusketa ibiltari honen ideia. Nire orain arteko lanaren bilduma txiki bat da.

**“Komikigintzan ideiak leku askotatik sortzen dira”**



Jai eta Gabon  
zoriontsuak igaro!



# AMAGARA

Erdiko kale, 54 behea • Tel.: 943 79 09 09

*Dagoeneko zimurrak  
desagertarazi daitezke  
Betetze eta Ezkutatzeko  
terapiak erabiliz*

**Elkarlana:**

C. Arruabarrena Dk.

Kolegiatu zenbakia: 6.073

*Deitu konpromisorik gabe.*



*Aurpegiko zimur arinak*



*Bekainarteko zimurrak*



*Akne orbainak*



*Erretzaileen zimurrak*



**SEAT**

**UDALAITZ, S.A.**

Musakola, z/g • Tel.: 943 79 18 80  
ARRASATE



**Audi A3**

**Etorkizuna  
diseinatzen**







# INSTITUTO OPTIKO

# Gabonetako eskaintza berezia

Eskiatzeko betaurrekoak



8.000 ptatik aurrera

Estazio digitalak



12.500 ptatik aurrera

Termometro  
elektronikoak



8.200 ptatik aurrera

Podometroak



2.500 ptatik aurrera

Osagarriak



500 ptatik aurrera

Termometroak



1.000 ptatik  
aurrera

Eguzkitako betaurrekoak



4.500 ptatik aurrera

Barrurako  
Termometroak



7.000 ptatik  
aurrera

Prismatikoak



5.600 ptatik aurrera

400\*4 objetiboko mikroskopia+  
Eschenbach prismatikoak



12.000 ptatik aurrera

Barometroak



4.800 ptatik  
aurrera


Erdiko kale, 22 - Tel.: 943 79 71 68 / Hiper Eroski - Tel.: 943 79 78 26 - ARRASATE (GIPUZKOA)

Erdiko kale, 21 - Tel.: 943 60 31 54 MUTRIKU (GIPUZKOA)

Andra Mari, 8 - Tel.: 94 620 29 86 / Grupo San Ignacio, 6 - Tel.: 94 681 84 92 - DURANGO (BIZKAIA)



# Uarkape Udal Pilotalekua



Hau duzue pilotalekuaren maketa. Orain konparatu benetakoarekin.

Uarkape Udal Pilotalekuak datorren astean irekiko ditu ateak, ia bi urteko lanen ondoren. 1.042 pertsonarentzako lekua du, guztiak jarrita egoteko. Baina, pilota partidak ez diren bestelako ekitaldietan —bertso ekitaldiak, herri

afariak...— 1.600 pertsona sartuko dira Uarkapen.

46 kw.ko 16 fokok argizatuko dute han jokatu diren pilota partidak. Kantxa, berriz, 37 metro luze eta 10 metro zabal da. Frontisaren altuera 12 metro-

koa da eta kontrakantxak, berriz, 4,5 metro hartzen ditu. Horiek dira zenbakiak.

458 milioi pezetako aurrekontua ezarri zen pilotaleku berria egiteko baina, erabili den diru kopurua zehaztu ezin den arren, dextente igo da.

**B**ada bitxikeriarik pilotaleku berriaren inguruan. Jarlekuak, berez, Sevillako La Cartujan ezartzekoak ziren, baina hara garaiz iritsi ez eta Mondragoen bukatu dute.

Larrialdietarako bi irteera ditu frontoiak, zortzi atekoa bakoitza, jendea nasai eta aguro irten dadin. Berogailua ere ipinita dago eta baita komunikabideentzako instalazio

bereziak ere, partidak behar bezala transmititu ahal izateko. Txapapean, adibidez, frontisaren atzealdean toki bat egin da, bi telebista kamera jartzeko adina leku duena. Toki horretatik orain artean inoiz grabatu ez diren irudiak hartuko dira.

Baina pilotaleku nagusiaz gain, Uarkapek eskainiko du bestelako zerbitzurik ere: taberna, pilotariak berotzeko edo umeez jolasteko bi pilo-

taleku txiki, aldagelak eta oraindik egin ez bada ere, rokodromo eta guzti izango duen gimnasioa.

Hauek dira pilotaleku berriaren ezaugarriak. Egoiak, oso, profesionalen pilota partidak aterpetzeko. Hain zuzen ere, pilotari profesionalak inauguratuko dute modu ofizialean Uarkape pilotalekua aurtengo Santamas bezperan.

Hortik aurrera pilotalekuak izango duen erabilera

oraindik guztiz finkatzeke dago.

## AUKEA GIDARI

Arrasateko Udal Kirol Elkarateak, Aukeak, kudeatuko du pilotaleku berria, herriko beste kirol zerbitzuekin egiten duen bezala.

Pilotalekuaren ordutegia oraindik zeharo zehaztu barik dago. Hala ere, honakoxe hau izango litzateke gutxi gorabeherako ordutegia: goizeko





**Santi Etxeberria**  
"Zurdo de Mondragon"

1919an Mondragoen jaioa. Eskuzko profesionala hogeita bost urtez.

"Ederra da. Kategoriako eraikina dela ematen du, gainera. Nik behintzat ez nuen halakorik espero. Mondragoek horrelako frontoia edukitzea sekulakoa da. Abantaila handia da hotzaren eta euriaren beldurrik barik pilotan jokatu ahal izatea, bai mutikoen-tzat, erretiratuentzat... denontzat. Gauza ederra izango da, bai".



**Jose Arriaran**  
"Arriaran II"

1926an Mondragoen jaioa. Eskuzko profesionala hogei-ta bederatzi urtez.

"Oso ondo dagoela uste dut. Begira, Aramaio hor ondoan dugu eta sekulako frontoi ederra dauka. Ordua zen Mondragoen ere horrelako bat edukitzeko. Orain, pozik nago".



**Mauri Zubillaga**

1950ean Hondarribian jaioa; Eskuzko profesionala hamahiru urtez.

"Azkenean hementxe dago. Zoragarria da, egunero joaten naiz lanak ikustera. Baina, badu akatsik. Frontisaren atzeko erremontea egurrezkoa jarri dute porlanezkoa jarri beharrean. Ondorioz, berotze ariketak eta horrelakoak egiteko ezin da erabili. Ezkerreko horma ere ondo bukatu barik dago; lixatu-edo egin beharko lukete hatzamarra-ek ebagiko ditugu".




**Juanito Osinaga**

1952an jaioa, Pilota Taldeko lehendakaria da aspaldiko urteotan.

"Beti nahi izan dugu pilotaleku berria, profesionalen mailakoa, estalia... Orain arte ibili garen moduan ibilita, euria, hotza, elurra eta abarrekoak jasaten, guretzat infernutik zerura pasatzea bezala da. Gainera, behar ditugun instalazio guztiak hantxe daude.

Ipini dituzten bi pilotaleku txikiak oso ondo daude. berotze ariketak eta egiteko".



1976. urtean Isturiz anaiek, Zubillaga anaiek, Lazpita eta Urra pilotariek Gipuzkoako Herri Arteko txapelketa irabazi zuten. Orduantxe hasi ziren herrian frontoi berri baten beharrari buruz hitz egiten. Horixe izan zen pilotaleku berria eraikitze-ko "lehenengo harria".



09:00etatik, gaueko 22:30ak arte irekita izango da.

Arratsaldeko 16:30ak arte eskoletako haurrek edo tokia alokatzen dutenek izango dute pilotalekua erabiltzeko lehen-tasuna. Alokairurako prezioa, berriz, urtarilean ezarriko da.

17:00etatik aurrera, kirol elkarteentzat izango da pilotalekua. Astelehen, asteazken eta ostiralean arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara gimnasia erritmikoa egiten dutenek erabiliko dute eta egunero 19:00etatik aurrera eta astearte eta ostegunetan 17:00etatik aurrera, berriz, pilota elkar-teenk. Azken hauek larunbat eta igande goizetan ere erabiliko dute 10:00etatik 14:00etara, beti ere gimnasiakoek behar ez badute.

Bestalde, libre dagoen orduetan edonork erabili ahal izango du, Musakolan moduan. Dena dela, esan bezala, hau guztia oraindik fin-

katu barik dago.

Pilota profesionalari dago-kionez, berriz, oraindik dena dago hitz egiteko. Udal orde-zkariet pilotalekua enprekin hitz

egingo dute, urtean zehar zer-bait egiteko.

### TRADIZIO LUZEA

Herri honek tradizio luzea du

### ASPALDIKO KONTUAK

1805ean pilotaleku berria eraikitze baimena eskatu zuen Arrasateko Udalak. Gipuzkoako Korrejidoreak kontrako txostenaz erantzun zuen eta horrek zabaldua-ko auziari esker, orduko pilo-talekuen funtzionamendua-ri buruzko hainbat xehetasun jaso ditzakegu.

Herriko abadeak eta alka-teak egindako agiritan, esa-te batera, zenbait arrazoi aipatzen dira aldeko. Lehe-nik, artesauk jai egunetan bakarrik joka dezaketela pilo-tan, beste egunera aldatuz gero, zigorra jasotzen dute eta.


Bigarrenik, lan egunetan joka-tzen dutenek diru beharrik ez dutela bizimodurako, eta jai egunetan pilotalekua libre uzten dutela langileek joka dezaten. Hirugarrenik, ikas-le eta "gramatikoe" ere ez dutela lan egunetan jolasten, maisuak uzten ez dielako. Azkenik, apaizak ez du apos-tuen arriskua ukatzen, baina konparazio hau egiten du: mozkorrak daudelako mahasti guztiak kendu behar bali-ra, ondorio txarra litzateke.

*Argia, 1994ko martxoaren 21ean argitaratua.*

pilotan. Mondragoeko lehe-nengo pilotalekua Maisu Ara-no kalean egon zen. 1899. urtean frontoi berri bat eraiki-tzeko beharra ikusi zen eta 1901. urtean Zaldibar inau-guratu zen. Hantxe indartu zen izugarri pilotarekiko zale-tasuna Mondragoen.

Cerrajerako langileak izan ziren horren eragile. Goizeko 06:00etatik 08:00etara, 08:30etatik 12:00etara eta 14:00etatik 18:00etara egiten zuten lan, gosaltzeko eta baz-kaltzeko atsedendialdiak egi-nez. Atsedenaldirik horiek apro-betxatuz, pilotan jo eta su ibil-tzen ziren langileak. Gano-razko partidak jokatzen zituz-ten, gainera, posturak eginez eta guzti, noski. Giro hartatik atera ziren Mondragoek orain arte izan dituen pilotari pro-fesional guztiak. ■

Ubane Madera



• Tatuajeak • Body-pearcing •  
• Arropak • Oinetakoak •

Santamas eta Gabon jaietan ondo pasatu!

La Rugaide, 14 • ARRASATE • Tel.: 943 79 49 72



## **BIXENTE ELORZA** (DANOK EUSKARA ELKARTEA)

# *“Sasoi hartan hazia erei*

1968an euskara elkarte bat sortu zen Arrasaten: “Danok”. Frankismoaren urteetan euskal taldeak legez kanpokoak zirela eta, “Juventud Deportiva” elkartearen baitan aurkitu zuen babesa. Bixente Elorzak ekarri dizkigu gogora “Danok” taldearen ibilerak. Bixente 1972tik 1976ra bitartean izan zen “Danok”-eko lehendakari. Aurretik J.A Altuna eta Antxon Elorza izan ziren, eta 1976tik 1979ra Jesus Mari Elkoro. Baina beste ugari ere baziren taldeki de eta laguntzaile.

— Zerk bultzatu zintuzteten elkarte osatzera?

— 1965-1970 urteen inguruan ikastolak hasi ziren sortzen, eta giro euskalduna berpizten ari zen. Gau eskolak ere bazeuden, frantziskotarren lokaletan ematen ziren eskolak eta. Giro horretan sortu zen “Danok”, 1968. urte inguruan eta “Juventud Deportiva de Mondragon” taldearen barruan. Orduan euskal taldeak

legez kanpokoak ziren. Horregatik Jose Maria Arizmendiarretak antolatutako eta kultura eta kirol giroko “Juventud Deportiva” taldearen babesean sortu zen.

— Zein zen zuen asmo nagusia?

— Euskal kultura berpiztea. Sasoi hartan ez zegoen euskalzaletasun handirik herrian. Jende askok ez zekien euskaraz hitz egiten. Klandestinitatean sortutako hainbat talderekin batera jaiotako euskal taldea dela esan genezake “Danok”. Euskal kulturaren alde egiten nahi zuen.

— Nola zegoen antolatuta? Non izaten zenituzten bilerak?


— Astero dozena bat lagun elkartzen ginen bilerak egiteko, Gurea zinemaren goiko geletan. Bakoitzak arlo jakin baten arduraz zuen.

— Jaialdiak antolatzeko dirua nondik lortzen zenu-ten?

— Zinemako sarreretatik, horixe baitzen “Juventud Deportiva” taldearen diru iturri nagusia. Talde guztien artean banaketa egiten zen gero. Dena den, pilota partidak ere antolatzen ziren.

— Hainbat ekimen antolatu zenituzten.

— Gau-eskolak, nahiz eta taldea sortu aurretik ere Arrasaten bazeuden. 70. hamarkadatik aurrera gorpuztuz joan zen, beti ere antolaketa ofizial baten barruan. Antzerki taldea ere sortu zen, eta baita “Danok” abesbatza ere. Zor-



**“Danok klandestinitatean  
sortutako euskal taldea dela  
esan genezake”**



# in zuen Danok taldeak”

tzikote txapelketak, eta baita hainbat jaialdi ere: Ez dok Hamairu taldearenak, Iparraldeko kantariak, bertso jaialdiak... Jaialdiak antolatzerakoan, gainera, zailtasun handiak izaten genituen. Gipuzkoako Gobernaziora baimena eskatu behar izaten zen beti, eta kantu eta bertso guztiak itzulita erakutsi behar izaten zitzaizkien jaialdia egin aurretik. Baimenak askotan pare bat egun lehenago lortzen genituen. Haurrei zuzenduta berriz, literatura lehiaketak, Zarautzoko Imanol Urbietaren kantu emanaldiak... Espeleologia

taldea eta Lore Gazteak dantzatza taldea ere “Danok” taldearen barruan zeuden, legaltasuna lortzeko. Hitzaldiak ere antolatzen genituen J. San Martinekin, Txillardegirekin, Villasanterekin...

— **Zein izan zen Danok taldearen ekarpenik handiena?**

— Euskal kultura berpizten lagundu zuen hainbat arlotan.

— **Zergatik desegin zen Danok?**

— Gure ostean beste belau-naldi batzuk sartu ziren talde-

an, jaialdiei garrantzi handiagoa ematen ziena. Egoera aldatuz joan zen. Gau eskolen ordez AEK sortu zen, eta “Danok”-en barruan zeuden hainbat talde ibilbide propioa egiten hasi ziren. Poliki-poliki indarra galduz joan zen, eta Arrasate Euskaldun Dezagun etorri zen gero, oinordeko moduan.

— **Zer gelditzen da talde horretatik?**

— Sasoi hartan hazia erein egin genuen, eta gerora jarraipena izan duten hainbat talde hazi horien fruitu dira.

— **Anekdotarik izan zenu-ten?**

— Jaialdiak antolatzerakoan kantuak eta bertsoak (nahiz eta bat-batekoak izan) itzulita eraman behar izaten ziren Donostiara, Gipuzkoako Gobernaziora. Bertsoak guk asmatzen genituen. Jaialdi batzuk arrisku handikoak izaten ziren. 1970ean, berriz, Euskal Kantuen Lehiaketaren finala bertan behera gelditu zen, Burgosko prozesua zela eta. Urtebete geroago egin zen, Zaldibarko pilotalekuan. Beste jaialdi askotarako, berriz, ez genuen baimenik lortu.

## Ametsa Eraikiaz Doa



Arrasate euskaldunduz,  
Euskal Herri euskaldun baten alde

**ABENDUAREN 21etik 24ra  
BITARTEAN  
ARRASATEKO  
LIBURU AZOKAN**

Gabonetako bazkide opariak jasotzera gonbidatzen zaitugu:

- Bazkide txartel berria
- Debaguneko egutegia (bazkide EZ direnentzat 400 pta.n salgai)
- Opari sorpresa



\* Bazkide zerrenda eguneratzeko, ekarri zure NA zenbakia. Kontu korronteko zenbakia ekartzeke badaukazu, zatoz 20 zenbakiekin, arren.





# Santamasak eta Gabonak ospatzeko geurea duzu leku aproposa

## Santamas 99 Menua

### JATETXEA

Askotariko Iberikoak  
"Bi Saltsa" Zainzuriak  
Frituak aukeran  
Otarraintxoak Plantxan

Legatz Gorena Labean Errea

Solomotxoa Plantxan

Euskal Pastela

Ogia eta ardoa barne

PREZIOA: 5.995 pta.  
BEZa barne.

### KAFETEGIA

Ondo Hornitutako Babarrunak

Txerrikume Errea

Goxua

Ogia eta Etxeko Ardoa barne.

Kafea

PREZIOA: 3.500 pta.  
BEZa barne.

Gabon Zaharreko kotilioia prest dago.  
Garaiz zabilta lekua hartzeko.

Biteri Etorbidea, 16 • Tel.: 943 71 24 33



# Santamasetako Pinporta milurtekoaren azken txerria



## Sagardotegia

**ITURRIETA**

Aruga auzoa  
Tel.: 945 44 55 85  
ARAMAIO



**DEKORAZIOA**

Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •  
Erradapiak • Leihoak • Ateak •  
PVCko leihoak •  
Aluminiozko leihoak •  
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

### GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia:  
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20





*Jangela, egongela, edo zuentzako nahiz umeentzako logela bat behar baduzu, zatorz Arrasateko TodoMueble Kabiara. Nahi dituzun altzariak, aurkituko dituzu ordaintzeko modurik onenean : 24 hilabeteko epea, interesik gabe eta 2000. urteko martxoan ordaintzen hasteko aukera eskaintzen dizugu.*

**Gaur erosi eta  
2000. urteko  
martxoan hasi  
ordaintzen!**


**TODO**  
**Mueble**  
DANIA OIA  
**Kabia**

**Gipuzkoa Etorbidea, 28**  
**Tel. 943 79 27 70 • ARRASATE**

**Ordutegia: 10:15 - 13:30 eta 16:00 - 20:00. Larunbatak barne**



# Lehen mailako pilotariak eta herrikoak




Enrique Galarza  
**Galarza V**




Aitzol Sukia  
**Sukia**



Haritz Berraondo  
**Berraondo**



Auxkin Perez  
**Auxkin**




Augusto Ibañez  
**Titin III**



Jose Mari Zezeaga  
**Zezeaga**



Mikel Goñi  
**Goñi II**



Aitor Elkoro  
**Elkoro**

Sarrerak agorturik daude. Joan den asteazkenean jarri ziren salgai, 11:00etan. Baina bederatzietarako hamalau bat lagun zeuden Amaia antzokiko sarrean, zain. Ordu baterako dena salduta zegoen.

Azkenean, bada, iritsiko gara egun handira. Santamas bezperara, Uarkape udal pilotalekuaren inauguraziora.

Udalak herriko 26 pilotari handi omenduko ditu: "Zurdo de Mondragon", Felix Arriaran, Jose Arriaran, "Olatxo", "Bueno", Felipe Garai, Mauri Zubillaga, Jose Mari Barandiaran, Juan Jose Urrea, Aitor Lazpita, Jose Luis Azpitarte, "Juantxu" pilotariak.

"Vasquita" eta bere ahizpa raketa jokalaria ere gogo-

ratuko dituzte. Pilotariekin segituz, "Mondragones", Eugenio Bolinaga, Tadeo Azkarate, Pako Arriaran, Pedro Ugarte, "Txikito de Mondragon", Faustino Velez de Mendizabal, "Arriaranen botilleroa"; Pedro Legarriartu eta Zezilio Altuna erremon-te jokalaria; Daniel Guridi eta Kruz Guridi zesta pun-

ta jokalaria ere denon gogoa izango dira.

Aspeko jokalarien bi partida antolatu ditu Udalak egun horretarako. 22:00. Biak ere eskuz binakako pilota partidak izango dira. Galartza V-Sukia, Berraondo-Auxkinen aurka eta Titin III-Zezeaga, Goñi II-Elkororen aurka. Bigarren honek ikusmin galanta piztu du.

\*\*\* Gabonetako eskaintza \*\*\*  
bereziki aprobetxatu!!

*Jai zoriontsuak izan!*

**MURU**  
AUTO KONPONKETAK

ZERBITZU OFIZIALA:  
Motorren konponketa eta salmenta

HONDA  
YAMAHA  
PIAGGIO  
GILERA  
PEUGEOT  
RIEJU

Araba etorbidea, Eskatu pabilioia • ARRASATE

ZIRT-ZART & ZIRT-ZART & ZIRT-ZART & ZIRT-ZART & ZIRT-ZART & ZIRT-ZART

**ZZ**

Santamas eta Gabon jaiak  
elegante igaro

Gorbea kalea • Tel.: 943 77 09 44 • ARETXABALETA



# Dantza soltea berriro ere Santamasetan

Bi urteko etenaren ondoren, berriro ere dantza-solte txapelketa ikusiko dugu Santamasetan. Igande honetan Euskal Herriko 13 bikote lehiatuko dira herriko plazan arratsaldeko seietaatik aurrera.

Trikitixaren doinuarekin fandangoa eta arin-arina dantzatzen zein den bikoterik fina frogatuko dute lehiakideek. Lau sari emango dira. Lehenengo eta bigarren bikoteei, neska dantzari onenari eta, noski, baita mutil dantzari onenari ere.

Dantza egitean erakusten duten arintasuna, berdintasuna eta exekuzioa baloratuko dira gehien.

## OHITURA GORDEZKEO

Zazpigarren aldia du aurten dantza solte txapelketak. Duen



Herriko plazan izango da aurtengo dantza solte txapelketa.

euskal kutsuarengatik eta Santamas jaien izaerarekin bat datorrelako ekin ziztaion egiteari, herriko dantza taldeen jarduna osatzeko.

Euskal Herriko Dantzarien Biltzarra arduratzen da bikoteak bidaltzeaz. Horretara

rako Euskal Herrian dauden dantza eskoletara jotzen du. Gipuzkoatik etortzen dira bikote gehienak, hala nola, Zegamatik, Ordiziatik, Hernanitik, Azkoititik, Asteasutik, Urnietatik eta Bergararik batez ere.

Soinujoleak, berriz, etxe-koak dira eta baita epaimahaia ere. Lore Gazteak eta Arros-taitz dantza taldeetako kideak arituko dira lan horretan, hain zuzen ere.

## HERRIKO TALDEAK

Honetaz gain, bestelako dantza ekitaldirik ere izango da Santamasetan. Santo Tomas egunean bertan kalejiran ibiliko dira Lore Gazteak eta Arros-taitz dantza taldeak, txistulariek eta dultzaineroek lagunduta. Ondoren, 13:30ean, dantza saioa eskainiko dute herriko plazan. Arratsalde partean, bestalde, Txerri Dantza eta Larrain Dantza egingo dira herriko plazan, iluntzeko 19:30etik aurrera. Herritar guztiak daude gonbidaturik ekitaldi hauetan parte hartzera.

**TITARE**

Lentzeria

Arropa honekin  
jaietako erregina  
izango zara

*Jai zoriontsuak!*

Olarte kalea, 6 • Tel.: 943 77 10 16 • ARRASATE



*Desioa errealitate  
bihurtzeko garaia  
iritsi da*

*Zorionak eta milurteko berri on!!*





# Santamasak, bertsoz blai!



Jon Sarasua



Jokin Sorozabal



Jexux Mari Irazu




Sebastian Lizaso



Bixente Gorostidi



Ainhoa Agirreazaldegi



BALKOITIK BALKOIRA

Andoni Egaña

Unai Iturriaga

Bertsozaleek bertsoekin asebetetzeko aukera paregabea izango dute aurtengo Santamasetan, zazpi bertsolarik egingo baitute Arrasateetik jira bi egunetan.

Lehen bertso saioa abenduaren 18an, larunbatean izango da. Sebastian Lizaso, Jokin Sorozabal, Bixente Gorostidi,

Jesus Mari Irazu eta Jon Sarasua bertsolariak arituko dira kantari Amaia antzokian, gaueko 22:00etan. Ainhoa Agirreazaldegi bergararrak beteko ditu gai jartzaile lanak.

### SANTAMAS EGUNEAN

Abenduaren 22an, Santamas egunean, herri bazkaria izan-

go da arratsaldeko 14:30ean Uarkape Udal Pilotalekuan eta bertsolariak ere arituko dira tarteka kantari.

Sabela bapo betetzearekin batera, bertsoez ere gozatu nahi duenak jakin beza bazkarirako txartelak AEDn, Hire liburudendan eta Biona eta Monte tabernetan dituela

eskuragarri, 1.500 pezetaren truke.

### BALKOITIK BALKOIRA

Arratsaldeko 19:00etan, berriz, balkoitik balkoira bertsoak izango dira herriko plazan. Andoni Egaña eta Unai Iturriaga bertsolariak izango dira saio berezi honen gidari.



**LIBURU ETA PAPER DENDA.  
BIDAIARAKO  
LARRUZKO ARTIKULUAK.**

Iturriotz, 4 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 14 84

## DISCO-BAR



**Disco-Bar Gurelekuk  
GABON JAI ZORIONTSUAK  
opa dizkizu.**

Zarugalde, 17 behea • ARRASATE  
Tel.: 943 79 20 29





**TROKO**

*Arrasatear guztioi  
Santamas eta Gabon jai  
zoriontsuak  
opa dizkizuegu!*

Erdiko Kale, 14 • Tel.: 943 79 46 94 • ARRASATE

**IKATZ**  
FOTOGRAFIA • IMAGEN

**KIT NIKON 400  
+ PRISMATIKOAK  
DOHAINIK**  
**13.900**  
+ 2.000 pezetako  
errebelatu txartela

**CANON EOS-300  
Obj. 28-80**  
**64.900**  
Opari batekin  
**ABC**  
+ 5.000 pezetako  
errebelatu txartela

**GABONETAKO 4 IZARRAK**

**CANON IXUS X-1  
LURROROTAKOA**  
**30.900**  
+ 2.000 pezetako  
errebelatu txartela

**SAMSUNG 1050 S  
ZOOM 38-105**  
**23.950**  
+ 2.000 pezetako  
errebelatu txartela

Iturrioz 8, ARRASATE Tlfnoa.: 943 77 04 01



# **≠KANPAZAR FIAT**

*Alfa Romeo* 



## ***FIAT PUNTO berria***

*Jai hauetan  
zorionak  
opa dizkizuegu*

*Tailerra: Bizkaia Etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 41 98  
Erakusketa: Araba Etorbidea, 32 • Tel.: 943 79 77 66*



# Liburu, disko eta bideo azoka Gabonetan

Urtero legez, euskal liburu, disko eta bideo azoka antolatatu du Txatxilipurdi elkarteak. Santamas egunaren bezperan irekiko da aurten hamaseigarren aldía duen azoka hau.

Azoka honen bidez euskal kultura indartu nahi da, bide batez euskaldunei literatura, musika eta ikus-ntzunezkoen inguruan euskaraz kaleratu diren berrikuntzak eskainiz. Era berean, euskalgintzan lan egiten duten beste elkarte batzuen materiala ere izango da eskuragarri.

Bitarte eta Zabaltzen banatzaileek ekarriko dute materiala Arrasateko azoka honetarako. Era berean, Ikastolen Elkartetik joko ugari ekarriko dituzte. Libururik gehien Elkarlanean, Txalaparta, Tarttalo, Ibaizabal, Alberdania,



Jende ugari pasa zen iaz azokatik.

Erein, Pamiela, Izar eta Susa argitaletxetakoak izango dira. Diskoei dagokienez, aldiz, Gor, Esan Ozenki eta Elkarlanean disketeetako diskoak izango dira salgai.

Herriko ikastetxe eta eskalategiek urtero eskaintzen

dute laguntza azoka honetarako. Esate baterako, azoka egunetan saltzaile lanetan aritzen dira, eta materialaren inguruko aholkuak ere ematen dizkiete erosleei.

Azoka honek harrera ona izaten du, eta aurten ere jende

dexente izango dutela espero dute arduradunek. Horixe adierazi digu Itziar Bartolomek, Azokako arduradun nagusiak: "beste urteetan jende ugari etortzen da, eta aurten ere jende kopuru berdintsua etorriko dela aurreikusten dugu".

## GOMENDAGARRIENAK

Eskoriatzako Irakasle Eskolak, berriz, haur eta gazte literaturako liburu gomendagarrien zerrenda jartzen du eskuragarri azokara hurbiltzen diren guztientzat.

Azokara joan nahi duenak, jakin beza abenduaren 21ean arratsaldeko 17:30etik 20:30era egongo dela zabalik. Abenduaren 22, 23 eta 24an, berriz, goizean 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldean 17:30etik 20:30era.

# DISCOPOLIS

## Musikarik gustukoena Gabon hauetarako!

Abba..... "Gold"  
 Betagarri..... "80/00"  
 Celine Dion..... "All the way ... a decade of song"  
 Cher..... "The greatest hits"  
 Corrs the..... "Unplugged"  
 Cranberries..... "Bury the hatchet"  
 Dover..... "Late at night"  
 Ekon..... "Etnia 2000"  
 Enrique Iglesias..... "Enrique"  
 Luis Miguel..... "Amarte es un placer"

Maná..... "Todo exitos"  
 Mariah Carey..... "Rainbow"  
 Miguel Bosé..... "Lo mejor de Bosé"  
 Polla Records La..... "Toda la vida igual"  
 Su ta gar..... "Homo sapiens?"  
 Denetarik..... "Bolero Mix 16"  
 Denetarik..... "Boom 99"  
 Denetarik..... "Rumbo al 2000"  
 Eta askoz gehiago...

Musika instrumentuen osagarriak  
 Euskaltel, aurrez ordainduriko telefono mugikorren banatzailea.

Juan Carlos Gerra 1, 20500 Arrasate. Tel.: 943 77 02 13



# Erakusleioen norgehiagoka

Santamas eta Gabon jaietako beste ezaugarrietako bat, denden apinketa izaten da. Lan berezia hartzen dute herriko dendariak euren erakusleioak polito erakusteko eta aspalitik dabilta lan hori betetzen, gainera.

Herriko zenbait dendak, "Beatriz Oinetakoak" eta "Zeziagak", adibidez, 25 urtetik gora daramate erakusleioak apaintzen. Gehienak, berriz, azken 10-12 urtetik hona hasi ziren.

## LEIAKETA

Udala ere apinketa horiek bulztatu nahi eta lehiaketa antolatu zuen orain urte batzuk (badira hamar urte baino gehiago). Hasieran herriko denda guztiak sartzen ziren lehiaketan, baina urte batzuetatik hona, parte hartu nahi duenak izena eman beharra du.

Erakusleioak abenduaren 15a baino lehen apainduta egon behar dira. Hortik urtarrilaren 2ra arteko astia izango dute epaimahai kideek erakusleioak ikusi eta epaitzeko. Apainketan erabilitako irudimena, originaltasuna, itxura ona, Santamas edo Gaboneta-



Iaz Ehune dendak irabazi zuen lehiaketa.

ko jaiak ukitzea eta mezu baliagarriak zabaltzea da udalak kontuan hartzen duena.

Aurreko urteetan bezala, aurten ere hiru sari banatuko dira. Lehenengoak plaka bat eta 30.000 pezeta irabaziko ditu. Bigarrenak 25.000 pezeta eta hirugarrenak, berriz, 20.000 pezeta. Azken sari hau Ibai Arte elkarteak emango du.

Mertxe Trojaola Ibai Arteko lehenariak kontatu digunez, dendetako erakusleioak apaintzeko erabiltzen den

material gehiena erositakoa izaten da. "Antzinako urteetan eskuz egiten genituen gauzak, baina orain, erosi egiten dugu ia dena".

Ez omen da diru larregirik gastatzen lan honetan. "Aurreko urteetan erositako apaingarriak hurrengoetan ere aprobetxatzen ditugu jeneralean. Hala ere, laupabost dendak, lan eta diru handia inbertitzen dute kontu honekin. Pentsa, zenbaitzuek eskaparistak ere izaten dituzte lan

honetarako". Denbora aldetik ere, badira lehenago hasten direnak eta baita azken orduan apaintzen dutenak ere. Jeneralean, abenduko zubia aprobetxatzen dute apinketa lanak egiteko edo bestela, gaupasaren bat edo iganderen bat.

"Erakusleioa apaintzeak lana ematen du, baina gustura egiten dugu. Gure asmoa erakusleioa alai eta erakarri jartzea da eta emaitzak ikusita, apur bat behintzat lortzen dugu".

## MENDIZABAL



### okindegia

Seber Altube, 2 • Tel.: 943 79 89 60  
ARRASATE

## SANTAMASETAN ONDO PASATZEKO...



Iturriotz, 12 • ARRASATE




# Kukubel: Sorginkeria kontuak haurrentzat



Marifeli Etxeandia, Oscar Castaño, Jasone Turunbai, Jurgi Etxebarria eta Javier Obregon Kukubiltxo antzerki taldeko aktoreak dira. Ez dira bakarrik, ordea, izan ere eurekin batera beste hogeit hamar lagun aritzen dira antzeppen bakoitzean. Larunbatean Arrasaten izango dira Kukubel lana aurkezten. (Herriko plazan. 17:00).

## — Zer kontaktzen du Kukubel antzezlana?

— Mendian bizi den artzain gazte baten istorioa da. Musika oso atsegin du eta egun batean txirula magikoa oparitzen dio lamia batek, zintzoa dela probatu ondoren. Txirula dela eta, sorginkeriaz akusatuko du Mateo Txistuk eta epaitu ostean, zazpi buruko herensugea-



ri eskainiko dio. Baina txirularen laguntza izango du, herensugeari aurre egiteko. Herri heroï baten istorioa da.

## — Nori zuzendua da?

— Umeei, baina badakigu gure ikusleak familiak direla eta, horregatik, badu nugu-

sien gusturako elementurik ere. Kukubel Resurreccion Maria de Azkuek bildutako ipuina da. Hala ere, beste ipuin batzuetako elementuak sartu dizkiogu: herensugea, Mateo Txistu...

## — Zenbat denbora daramazue lan honekin?

— Iazko martxoaren 14an estreinatu genuen. Baina Arrasaten ez dugu inoiz antzeztu. 1998an hogeit hamar urte bete zituzten Kukubiltxok eta zerbait handi egin nahi izan genuen orain arte landu ditugun estetika eta panpinekin. Barruan nahiz kanpoan egiteko lana da.

Argiekin apustu handia egin genuen eta barrualdean oso giro polita sortzen da. Hala ere, kanpoan antzezteak hurbiltasuna lortzen du. Umeek herensugea gertuago ikusiko dute.

## — Nola animatu Arrasateko neska-mutikoak Kukubel ikustera joateko?

— Arrasaten primizia delako eta aukera ederra dute-lako ondo pasatzeko.

**Ipek**  
Denda



Iturriotz, 19  
(Herriko plaza) ARRASATE

**ZABALA**  
oinetakoak

51 urtean elkarrekin ibili gara  
**Ospa ditzagun Santamasak**  
Erdiko kale, 18 • Tel.: 943 79 14 27

**Bonet Ardotezia**

Rioja ardoak • Duero ardoak • Priorat ardoak  
50 marka desberdinetik gora  
Cognac, Armagnac,...

Olarte 16 behea • Tel.: 943 79 58 23

Milurteko berrian  
**BETI SEGURU**  
jarraitzeko



**MIKEL LASA, S.A.**

Zorionak eta urte berri on!

Otalora Lizenziatua, 5 • MONDRAGOE  
Tel.: 943 71 24 54 • Faxa: 943 77 10 74  
e-maila: mikellasa@segurcity.net



## Aita-semeen desafioa



Iaz Zelai izan genuen Zaldibarren.

Aurten ere herri kirolak ez da falta izango Santamas egunean. Aspaldiko urteetan bezala, Zaldibarreko pilotalekuan egingo dira probak eta aizkolariak eta harrijasotzaileak ikusi ahal izango dira hantxe. Eguerdian izango da hitzordua eta zaleek Santamas aizkolari txapelketan, Olasagasti, Mingedia, Peñagarikano eta Nazabal ikusi ahal izango dituzte,

enborrak mozten eta parean jartzen dieten guztia.

Hori 12:30etik aurrera izango da. 13:00etan, berriz, desafio polita ikusiko dute bertaratzen direnek. Aita-semeak aurrez aurre. Perurena aita eta semea, nor baino nor arituko dira harria jasotzen. Ikusi egin behar gaztetasunak edo esperientziak, nork irabazten duen.

## Santamas pilota txapelketa

Uarkape Udal pilotalekua herriko pilotariak estreinatuko dute. Izan ere, larunbatean, arratsaldeko 16:00etan, Santamasetako pilota txapelketako finalak jokatu dituzte eta bertan. Horrela hitz eman diete pilotalekuko arduradunek. Infantiletan Zuazua-Agierre arituko dira. Kadetetan Jimenez-Urkia. Gazte mailan, Uribarren-Dominguez. Lau

t'rdiaren barruan Osinaga-Lazkano arituko dira. Ondoren, Gipuzkoako txapelketa jokatu dute Ubera eta Iñurritegi elgetarrek, Zugasti eta Belategi arrasatearren aurka.

### SARI BANAKETA

Sari banaketa Elgoro eta Etxanizen esku izango da, eurak gonbidatu dituzte eta sariak banatzeko.

## Santamas Xake txapelketa

Hamaikagarren aldiz jokatu da Santamas Xake txapelketa abenduaren 19an, igandean, Corazon de Encina zentroan. Hamalau herri-tako taldeak hartuko dute parte, tartean, Aretxabaleta, Eibar eta Castro Urdiales herrietako laukoteak izango dituzte

aurrez aurre arrasatearrek. San Andres Xake taldeko laukotea, Hernando, Tornay, Ortega eta Ruizek osatuko dute. Bost minutuko partida azkarren ligaska jokatu dute.

Txapelketa 10:00etan hasiko da.


## Lopez Rekarte saria

Abenduaren 21, 23, 24, 27, 28, 30ean eta 31n jokatu da aurtengo Lopez Rekarte saria. Bomba Taldiek antolatu du txapelketa hau eta zazpinako taldetan jokatu dute

1987 eta 88an jaiotakoek.

Partidak Atxabalpen jokatu dira eta 25 minutukoak izango dira. Tartean bost minutuko atsedendia egingo dira.

# KATAIDE Txakolina



**Ederra, fina, gardena eta atsegina.**

**Arrasaten egina.**

Hotza edan, 8 eta 10° C artean

Jabier Arregui • Egi Haundi baserria • Musakola Auzoa • ARRASATE



# Ondo pasau Santamasetan !



Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON



OPEL 

**TAKOLO AUTOAK**

Araba etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia  
Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE

Arrasate, abenduak 17

Kaixo Olentzero:

Oraindik txikia naiz. Bizikleta gorri polit bat daukat.

Baina handitzen naizenerako auto urdin bat eskatu nahi dizut. Auto urdin handi handi-handi bat.

Auto bat, auto bat... Hori da nire ametsa.

Ekarriko didazu lakoan, laster arte Olentzero.



patxo asko zuretzat

Iker

# UGARTE

A R O Z T E G I A

Apainketa • Altzariak

Santamas eta Gabon zoriontsuak izan!

San Juan, 1 • (Gasolindegiaaren parean) • BERGARA • Tel./ Faxa: 943 76 54 91



# Santamasetako barazki, fruitu, artisau eta ganadu feria



Laubide plazan jarriko da ganadu feria.

Txerriaz gain, dudarik ez da Santamasetako ekitaldirik nagusia azoka dela. Fruituak, barazkiak, eskulanak eta ganadua, noski. Horietxek guztiak egongo dira ikusgai Biteri aparkalekuan, azokan eta Laubide eta Jokin Zaitegi plazetan.

Fruitu eta barazki erakusketa Biteri aparkalekuan izango da. Erakusketa eta lehia-keta. Jakin dugunez, guztira 90 fruitu eta barazki postu jarriko dira. Eta Euskal Herriatik eta kanpotik etorritakoak izan-

go dira: Urretxu, Idiazabal, Laudio, Elorrio, Gernika, Saldias, Altsasu eta Hendaia dira baserritarren jaioterrietako batzuk, baina Asturiasetik ere, Pola de Siero herritik, etorriko da saltzailerik.

Arrasateetik, bestalde, sei baserritarrek jarriko dituzte euren produktuak salgai. Egi-Haundi, Aranguren, Urkimendi, Erenuzketa eta Bidasoroko baserritarrez gain, Harreman, gobernuz kanpoko erakundeak ere jarriko du saltokirik.

## HEGAZTIAK ERE BAI

Azoka plazan, bestalde, beste bost saltoki jarriko dira. Kasu honetan hegaztiak izango dituzte. Bergaran, Urretxun, Legorretan, Tolosan eta Arrasaten hazitako hegaztiak izango dira. Arrasatearra, Felix Zubia izango da.

Ganadu feria iaz bezala, Laubide plazan jarriko da. Goizeko 10:00etan hasiko da eta urteroko enkantea ere hantxe izango da.

Artisau feria, ordea, ordu

erdi geroago hasiko da. 10:30ean. Jokin Zaitegi plazako arkupeen bueltan elkartuko dira eskulangileak. Hantxe aurkitu ahal izango dira ohiko artilezko galtzez gain, bitxiak eta etxerako apaingarriak, bai eta txapelak, abarkak eta bestelakoak ere.

## SARI BANAKETA

Fruitu, barazki eta gazta lehia-ketako sari banaketa goizeko 11:30ean izango da, Biteri aparkalekuan.



Txerria gaueko 12:00etan zozkatuko da, herriko plazan.

## 75. urteurreneko bilduma



Montblanc-ek duen eskusiboena oparitzearen eta bete-betean asmatzearen atsegina.

Montblanc Meisterstück-en idatz tankera enblematikoaren maitaleentzat egokiena.

Eraztunak ere, 18 kilateko urrekoa diamantezko txerto batekin, dotoretasun ukitua ematen dio, 1999an soilik aurkituko duzu.

Erabateko omenaldia 1924. urtean Montblanc-ek sortutako Meisterstück lehen lumaren edertasunari.

Opari ahaztezinak

Montblanc munduari bisita.

**J. URIARTE, C.B.**

Ferrerias, 32 - Tel.: 943 77 03 80 - 20500 Arrasate





# Txoronpio, txoronpia eta Olentzero menditik kalera



Txoronpio eta Txoronpia hauren eskutitzak jasotzen.

Abenduaren 24an Txoronpio, Txoronpia eta Olentzero jaitziko dira menditik, duela hogei urtez geroztik izan duten ohiturari eutsiz. Eguerdiko hamabietan Munar auzotik hasiko dute beren ibilbidea Txoronpio eta Txoronpiak, Arrasateko haurrek Olentzerori idatzitako eskutitzak jasotzeko. Urtero legez, Arrasateko hainbat kultura elkartetik lagunduko diete gainera Txoronpio eta Txoronpiari. Txistulariak, dantzariak, dultzai-

neroak, Txatxilipurdi elkarte-ko kideak eta Orkatz Eskaut taldekoak arituko dira, esate baterako, kaleetako giroa alaitzen.

Hamabiak eta laurdenetan Uribe auzora joango dira, eta sasoi batean Eroski zegoen tokiaren inguruan jasoko dituzte auzotarren eskutitzak. Hamabi eta erdietan San Andresera joko dute, ordu bata laurden gutxitan Musakolara, eta ordu batean Santa Teresa auzora. Ordu bata eta

laurdenetan bukatuko dute auzoetako erronda, Altamira plazan. Ondoren berriz, ordu bata eta erdietan, Seber Altube enparantzan agur egingo diete Txoronpio eta Txoronpiak Arrasateko haurrei, hurrengo urteko Gabonak arte. Jasotako eskutitz guzti-guztiak, baina, Olentzerori eman- go dizkiotela aitortu digute. Beraz, lasai egon daitezke Arrasateko haurrak.

Baina, bitxikeriak ere izaten dira egun horretan. Izan ere, zenbait haurrek eskutitzarekin batera txupetea botatzen dute Txoronpio eta Txoronpiaren zakura.



Olentzero.

## OLENTZERO ARRATSALDEAN

Olentzero, berriz, arratsaldeko seieta jaitziko da menditik Arrasateko haurrekin momentu goxo bat pasatzeko eta urte osoan txintxoak izan diren haurrei goxokiak emateko. Olentzerok jakinarazi digunez, gainera, baserritar jantzita ikusi nahi ditu haur guztiak. Arrasateko kaleetatik ibilbidea egin ondoren, herriko plazan agurtuko ditu Arrasateko haur guztiak.

*J. Markiegi.*

*Gizonezkoen moda*

Olarte, 2

Tel.: 943 79 15 32

JAI ZORIONTSUAK



A R R A S A T E



# Ibai Arte, herriko jaiak alaitu nahian

Dendariek partaidetza berezia izaten dute herriko jaietan. Ibai Arte elkarteak batuta, hainbat egitasmo antolatzen dituzte urtero-urtero.

Aurtengo Santamasetarako megafonia prestatu dute, alde zaharreko kaleetan Gabon musika entzun dadin. Jendea ez aspertzeko, baina, arratsaldeko seietik zortzi eta erdiak arte mugatuko da eguneroko "kontzertua".

Honetaz gain, aurtengo egitasmo berezi bat abiatu dute Ibai Arteko dendariak. Urtero garai honetan promozio berezi bat egiten dute, bezeroarentzatarikargarrak izaten den promozioaren bat. Oraingo honetan, 1.410.000 pezeta banatuko dituzte Ibai Arteko bazkide diren dendetako bezero guztien artean.

## BOÑOAK

Bonoak erabiliko dira horretarako. Erosketa bat egitean, urratzeko diren bono horietako bat emango dute opari Ibai Arteko dendetan erosketaren bat eginez gero. Urratu eta han agertzen da saria (tokatzen denean, noski).

Saria beti dirua izango da, baina ezin izango da eskuratu. Ibai Arteko dendetako produktu bat hartuko da horren orde edo beherapena egingo zaio pertsona horrek erosi duen produktuan.

Sariak handiak zein txikiak izan daitezke. Tokatu eta berehala gasta daiteke edo beste-

la pilatzen joan eta kopuru dexente bat egindakoan, norberak nahi duen produktua truke aldatu.

Guztira 155.100 bono banatu dira Ibai Arteko 88 denda, taberna eta banketxeen artean. Sariak, berriz, 680 dira.


## LOTERIA

Iaz, eta baita aurrerago ere, Ibai Arteko dendariak loteria eman izan dute. Baina Mertxe Trojaolak, Ibai Arteko presidentea adierazi digunez, "jendeak ez du hainbeste maitate loteria. Iaz, adibidez, botatakoka tokatu zitzaigun eta jende asko pasatu ere ez zen egin saria kobratzera".

Automobilen bat ere zozkatu izan du Ibai Arteko eta baita Parisera eta Veneziara bidaiak ere.

Promozio hauetaz gain, ordea, bestelako ekimenak ere antolatzen ditu urtean zehar. Informatika eta kontabilitate ikastaroak, paketegintza, Euroaren inguruko hitzaldiak... "Berez bazkideentzat izaten dira, baina kanpoko norbait etorritz gero, ez diogu muzin egiten".

Orain sei bat urte hasi zen Ibai Arte mota honetako promozioak egiten, "jendea erakartzen du eta gainera, jendeak pozik hartzen ditu horrela egitasmoak. Dendarion-




tzat ere pozgarria da bezeroak pozik ikustea".

## IBAI ARTE

Esan bezala, 88 dendak, banketxe eta tabernak osatzen dute Ibai Arte elkarteak.

Ez da ezer berezirik behar Ibai Arteko bazkide izateko: eskatu eta sartu. Ondoren, hiru hilabetetik behin 5.000 pezetako ordain saria egin beharra dago.

Ibai Arte elkarteak zuzendaritza batzorde batek gidatzen du. Hiru presidentea, hiru diruzaina, hiru idazkari eta beste hiru kidez osatuta dago batzordea. Bi urtetik behin, pertsona kopuru honetatik erdia aldatu egiten da eta elkartearen edozein kideri tokatu ahal zaio mota honetako lanen bat betetzea. Orain, udalak toki bat eman dio elkarteari Arrasate Pasealekuan eta kideak benetan pozik daude honekin.



**ZUBIZARRETA LANTEGIAK**  
Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65

**AKELARRE**

- Etxean egindako turroiak
- Giraltxea
- Polboroiak
- Trufak
- Mazapanak
- Gabonetako tartak

Zarugalde, 54 • Tel.: 943 77 00 71





# Programazioa

## OSTIRALA 17

- 13:30** Albiste aurrerapena  
**13:35** Gatza eta Berakatza  
 Alberto Elorza Zelai  
 Zabaleko sukaldariak  
 prestaturiko plater bat.  
**13:45** Zortziko Txikia (errepika).  
**20:00/20:30/21:00** Berriak  
**21:30** Astebete. Asteko  
 albisterik inportanteenak,  
 Maider Osak aurkeztuta.  
**22:00** Gatza eta Berakatza  
 (errepika).  
**22:15** Soinuz Blai. Edu Abasolo.

## LARUNBATA, 18

- 13:30** Asteko programarik  
 interesgarrienen  
 errepika: Hamaika  
 Magazin, Aurrez Aurre,  
 Zortziko Txikian, Soinuz  
 Blai eta Astebete.

## IGANDEA, 19

- 13:30** Asteko programarik  
 interesgarrienen  
 errepika: Hamaika  
 Magazin, Aurrez Aurre,  
 Zortziko Txikian, Soinuz  
 Blai eta Astebete.

## ASTELEHENA, 20

- 13:30** Albiste aurrerapena.  
**13:35** Gatza eta Berakatza.  
 Alberto Elorza Zelai  
 Zabaleko sukaldariak  
 prestaturiko plater bat.  
**20:00/20:30/21:00** Berriak.  
**21:30** Mondrasport Itxaro  
 Zubillaga eta Xabier  
 Urzelai kazetariak  
 aurkezturik. Asteburuko  
 kirolak xehe-xehe  
 emanda.

## ASTEARTEA, 21

- 13:30** Albiste aurrerapena.  
**13:35** Gatza eta Berakatza  
 Alberto Elorza Zelai  
 Zabaleko sukaldariak  
 prestaturiko plater bat.  
**13:45** Mondrasport (errepika).  
**20:00/20:30/21:00** Berriak

- 21:30** Hamaika Magazin.  
 Loditasuna eta Gabonak  
 jorratuko dira. Astrolo-  
 gian 2000. urterako  
 igarkizunak.  
**22:00** Gatza eta Berakatza  
 (errepika).

## ASTEAZKENA. 22

- 13:30** Albiste aurrerapena.  
**13:35** Gatza eta Berakatza.  
 Alberto Elorza Zelai  
 Zabaleko sukaldariak  
 prestaturiko plater bat.  
**13:45** Santamasak 98.  
 Errepasoa iazko  
 Santamasei.  
**20:00** Santamasak 99.  
**21:00** Gatza eta Berakatza  
 (errepika).  
**21:10** Santamasak 99.

## OSTEGUNA, 23

- 13:30** Albiste aurrerapena.  
**13:35** Gatza eta Berakatza.  
 Alberto Elorza Zelai  
 Zabaleko sukaldariak  
 prestaturiko plater bat.  
**13:45** Santamasak 98.  
 Errepasoa iazko  
 Santamasei.  
**20:00/20:30/21:00** Berriak.  
**21:30** Santamasak 99.  
**22:35** Gatza eta Berakatza  
 (errepika).

## OSTIRALA, 24

- 13:30** Albiste aurrerapena.  
**13:35** Gatza eta Berakatza.  
 Alberto Elorza Zelai  
 Zabaleko sukaldariak  
 prestaturiko plater bat.  
**13:45** Santamasak 99.  
**20:00-24:00** Santamasak 99.

## Gatza eta Berakatza

Sukaldaria: Alberto Elortza (Zelai Zabal jatetxea) Oñati.

### NOIZ

Astelehena 20  
 Astearte 21  
 Asteazkena 22  
 Osteguna 23  
 Ostirala 24

### PLATERA

Gari-zainzuri krema babatxoekin.  
 Mihiarraina ganbaz eta ondoz betea.  
 Bakailao eta patata orriak, piper berdearekin.  
 Oreina gaztain purearekin.  
 Fruitu eta intxaur konpota.

**HIES  
 EKIMENA**

Astelehen, astearte  
 eta ostiraletan  
 Setatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99

**ARROGOI  
 TABERNA**

*Ondo para Santamasetan!*

Zarugalde, 28 • ARRASATE • 943 79 06 40

**ARRASATE  
 HOTELA**



Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16  
 ARRASATE



# NISSAN 4X4 GAMA PURA RAZA



## 5 URTEKO BERMEA



### PICK-UP

83 CV diesel motor atmosferikoa edo TDi 104 CV. 4x2 edo 4x4 trakzioa.

3 karrozeria. ABS. Lagunduriko Direkzioa. Aire Girotua. Airbag-a.

Kristal jasogailu elektrikoa. 2.740 kilorainoko Gehienez 2.740 kg.ko pisua.

**1.867.000** pta.tik\* aurrera PICK UP bat duzu.



### TERRANO II

125 CV TDi edo gasolinako 118 CVko motorra. Airbag bikoitza.

ABS. Labaigarritasun bereizle mugatua. Aire girotua. Eguzki sabai elektrikoa. RDS irrati-kaseta. Eskuko abiadura aldagailua edo automatikoa (aukeran).

**3.085.000** pta.tik\* aurrera TERRANO II bat duzu.



### PATROL GR

2.8 TDi motorra eta 130 CVko 6 zilindro. ABS adimenduna. Airbag

bikoitza. 4S hautatze kontrol sistema egonkortzailea. Labaigarritasun bereizle mugatua eta honen blokeoa. Larruzko eserlekuak. Klimatizagailua.

**4.537.000** pta.tik\* aurrera PATROL GR bat duzu.

NISSAN  
4X4 **5** URTEKO  
BERMEA



\*Salneurri gomendatua (BEZ, Matrikulazio zerga, Garraioa, Nissan Assistance eta 5 urteko Bermea kilometro-mugarik gabe). Penintsula eta Balear Uharteetako baliagarria. Floten baldintzei buruz galdetu zure banatzaileari. Prezio baliagarriak hil bukaera arte stockean dauden ibilgailuentzat. (Bertsioaren arabera ekipamendua).

GIDATU ETA GOZATU

# ALDIBI AUTOAK, S.A.

NISSAN BANATZAILE OFIZIALA

Zierrate kalea, 1 • Tel: 042 71 20 02 • 20500 ARRASATE



*Eguberri zoriontsuak!*



• Larruzko artikuluak • Bisuteria • Opariak • Solariuma • Kosmetika

*Gabon otarrak prestatzen dira!*



GUERLAIN

LANCASTER

Elizabeth Arden



ZARRAOA

Kanpandorpea, 4  
Tel.: 943 79 12 19



Irailana. Kobre gaineko akuafortea.



ARREGI

Arte eta Enmarkazioa

- Enmarkazioa
- Ispiluak
- Kuadroak
- Irarlanak

Maalako errebala, 8 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 56 44



# Klasikoak gozatzeko

**Musiklasik** osteguna, 21:30

Musiklasik orain bi urte sortu zen, Jon Aldanondok Iñaxio Olaizolarekin hitz egin eta gero. Artean Iñaxiok Zoroklasikoak irratsaioa egiten zuen Arrasate Irratian, beste bi lagunekin batera: Eugenio Etxebeste eta Euxebio Iñarrarekin, hain zuzen. Irratian bi urteko eskarmentua zuten eta, izan zuten arrakasta ikusirik, Jonek horrelako zerbait egitea proposatu zion telebistarako.

Iñaxio mutil baikorra izaki, baietz esan zion, baina aldaketa nabarmen bat egitea proposatu zuen, alegia, Mondragoen bertan egiten den musika klasikoari lehentasuna ematea. Horregatik, nor egokiagoa lankide izateko Marta Izagirre baino? Marta Arrasate Musikaleko zuzendaria da eta aurretik bazuen esperientzia kameraren aurrean,

ATBn bertan. Honek ere baietz. Eta horrela hasi ziren, biak ala biak, saioa elkarrekin prestatzen eta aurkezten.

Ordu erdiko saio bat prestatu zuten, hamabostean behin ematekoa. Gogotan hartzen zuten beti Arrasate Musikalen egitaraua, han eta hemen grabazioak egiteko.

Gonbidaturik ere izan zuten noiz edo behin. Tronboi taldea eta Jurassic Bandek, adibidez, zuzenean jo zuten platoan.

Aurten izan da aldaketarik programan. Alde bate-tik, Iñaxio bakarrik ari da Musiklasik aurkezten, Marta haundun dago eta. Bestetik, maiztasuna ere aldatu egin da: orain hilean behin ematen da.

Musika klasikoa maite duzuenok, Musiklasik ikusi.

# Gabonak ATBn



ATB kalean izango da Santamasetan.

Uarkape Udal Pilotalekua izango da aurtengo Gabonetako gai nagusietako bat. Izan ere, aspaldiko partez, Arrasatek goi mailako pilotaleku estali bat izango du, lehen mailako pilotariak erakarriko dituena.

Pilotalekuaren inaugurazioa abenduaren 21ean izango da, baina 18an ere pilota partidak izango dira. ATBk bien berri zehatza emango du.

Abenduaren 18an entsegu orokorra egingo da, 21ekoa guztiz ondo irten dadin. Santamasetako finalak jokatu dira larunbatean eta baita Mondragoen hain sustraituta dagoen Erro enpresak eratu dituen partidak ere. Hori larunbatean izango da. ATBk grabatu egingo ditu partidak eta asteleheneko Mondrasport kirol saioan erreportaje luzea eskainiko du.

Abenduaren 21ean, berriz, egun handia. Gaur egun anto-la daitekeen norgehiagokarik ikusgarriena antolatu du Aspe enpresak: Goñi II eta Elkorok Titin eta Zezeaga izango dituz-

te aurrez aurre. Seguru gaude ez dela Azkoitian gertatu zena errepikatuko eta partida ikusgarria izango dela.

ATBren kamerak hantxe izango dira. Erreportaje berezia prestatuko dugu inaugurazio ekitaldiaren inguruan, bihar-monean emango dena, Santamas 99 saioaren barruan.


## SANTAMASAK

Abenduaren 22an Santo Tomasak ospatuko dira Arrasaten eta, hori dela eta, urtero legez programa berezia egingo da. Jaia girotzeko, 13:45ean iazko Santamasen erreportajea emango dugu. 20:00etan, berriz, aurtengoaren gainekoa. Eta, denon gainera, festa giro jatorra kale-etan.

Olentzeroren irudiak ere izango dituzue. Baita Txiki-landiakoak ere. Errege Magoen kabalgatak ematen duena ahaztu barik, jakina.

Aurtengo Gabonak bereziak izango dira Arrasate Telebistan.

Ikusi besterik ez duzu.



Marta Izagirre eta Iñaxio Olaizola.

*Sili Sili*  
**Martxa eta estilo handiko arropa**  
 Iturriotz, 9 • ARRASATE  
 Tel.: 943 79 81 82



**Elizondo**  
 kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99



## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Etxe txiki eta merkea salgai Eibarren. Tel.: 943 12 71 04.

• Etxebizitza salgai Eskoriatzako erdialdean. 86 m<sup>2</sup>. 90. urtean berriztuta. Berogailu zentrala eta jantzita. Tel.: 619 42 48 72. 19:00etatik aurrera.

• Txaleta salgai Burgosen (Pedrosa de Tobalina). 74 m<sup>2</sup>, 2 solairu, lorategia 75 m<sup>2</sup>, igerileku banatua. 3 logela, sukaldea, komuna, egongela. 14.600.000 pta, negoziatzeko. Tel.: 943 77 08 50. Emi. Goizeko 06:00 eta arratsaldeko 16:00.

### 3. Errentan emateko

• Etxebizitza alokagai ikasleentzat. Tel.: 943 79 39 02. Gauz.

• Apartamentu bat alokatzen da Hendaiako hondartzaren ondoan. Guztiz jantzita dago, berogailu, terraza eta lorategiarekin. Astebukaera edo denboraldietarako. Tel.: 943 79 86 65 eta 656 76 02 58.

• Ikasleentzako etxebizitza alokatzen da San Andresen. Tel.: 943 77 03 53.

• Logela bat alokatzen da Erguin auzoan. Tel.: 943 79 35 93

### 4. Errentan hartzeko

• Gela bat alokatu nahiko nuke. Tel.: 943 62 13 57.

• Logela bat alokatuko nuke, berdin zait beste batzuekin bada. Tel.: 943 52 41 30. Xabi, gauz.

• Bikote batek etxebizitza hartuko luke alokairuan, posible balitz Arrasaten. Tel.: 617 01 47 90.

• Ikasle batek etxebizitza konpartitu bat bilatzen du otsailetik aurrera, Arrasaten. Tel.: 943 61 99 24.

### 5. Etxeak osatzeko

• Mutil batek etxebizitza bat osatuko luke Arrasate edo inguruetan. Tel. 943 71 20 99. Jabi, lanordutan.

• Etxebizitza merke bat alokatuko nuke Arrasaten edo Aretxabaletan. Utzi zure datuak telefono hauetan: 943 79 34 37 edo 943 79 15 95.

• Etxebizitza osatuko nuke Arrasaten otsailetik aurrera. Tel.: 943 61 99 24.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Trastelekudun garajea salgai Uribarri etorbidean. Tel.: 943 77 06 68.

• Garajea salgai Kontzeziño kalean. Tel.: 943 79 54 07.

### 9. Errentan emateko

• Garaje itxia alokatzen da. Tel.: 943 79 19 64. 20:00etatik aurrera.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m<sup>2</sup>ko eta bi solairuko tokia salgai. Tel.: 943 79 42 65.

• Taberna salgai, ongi kokatua, eta lanarekin. Tel.: 696 36 41 25.

• Lanean diharduen taberna-erregia salgai. Tel.: 943 76 23 08. Manolo.

### 14. Errentan emateko

• Bost pertsonentzako lokal txikia alokagai, prezio onean. Tel.: 629 89 95 53 eta 630 20 56 70.

• San Bizente kalean 60 m<sup>2</sup>ko etxabea alokagai, berogailu eta guzti. Kontsulta edo ofizinarako egokitua dago. Tel.: 943 79 18 95.

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m<sup>2</sup>ko eta bi solairuko lokala alokagai. Tel.: 943 79 42 65.

## LANA

### 17. Eskaintza

• Neska prest orduka garbiketa lanak egiteko. Tel.: 943 71 53 74.

• Esperientziadun emakumea prest goizetan, pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko. Tel.: 943 79 40 72. Vitori.

• Emakumea prest goizez lan egiteko. Tel.: 943 79 40 72. Vitori.

• Neska euskalduna, administrazio eta komertzial tituluduna, prest alor honetako lanak egiteko. Frantsesa eta ingelesa menperatzen ditut. Tel.: 943 79 45 24 eta 943 75 50 45. Ane. 20:00etatik aurrera.

• Neska euskalduna eta esperientziaduna etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko prest. Tel.: 943 79 45 24 eta 943 75 50 45. Ane. 20:00etatik aurrera.

• Esperientziadun emakume euskalduna orduka etxeko lanak egin edo bulegoak garbitzeko prest. Tel.: 943 79 37 68.

• Ospital laguntzaile tituluduna prest pertsona nagusiak eta gaixoak zaindu eta eramateko, auto handi batean. Tel.: 609 77 01 33.

• Neska gaztea prest umeak zaindu edo zerbitzari lanak egiteko. Tel.: 943 79 68 77.

• Esperientziadun neska umeak zaintzeko edo beste edozein lanetarako prest, arratsaldez. Tel.: 639 48 00 28, gauz. 945 27 90 43, egunez.

• Neska prest era guztietako lanak egiteko. Tel.: 616 37 20 92.

### 18. Eskaerak

• Sukaldaria behar da asteburuetarako. Ahal bada, esperientziaduna. Tel.: 943 78 34 79.

• Neska edo emakumea behar da bi ume zaintzeko. Tel.: 943 77 00 19.

• Umeak zaintzeko pertsona bat behar da, erreleboka. Tel.: 943 79 14 39. Idoia.

• Emakumea behar da umeak zaintzeko eta etxekolanak egiteko, Aretxabaletan. Tel.: 943 77 17 57. 20:00-22:00.

• Pertsona bat behar da sukaldean lan egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

• Umeak zaintzeko neska bat behar da. Tel.: 943 77 17 97.

• Pertsona bat behar da sukaldeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 24 58.

• Zerbitzari bat behar da. Tel.: 943 79 95 55

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Ingeles filologia ikasten ari den mutil batek ingelesezko eskolak emango lituzke. Eskoriatzan zein Arrasaten. Tel.: 943 71 47 85.

• Marrazki artistikoa eta olio erako eskola partikularrak emango nituzke etxeko. Enkarguzko lanak ere egiten ditut. Tel.: 943 79 19 23.



## 21. Eskaerak

- Ekonomia zientziatan lizentziaduna behar da eskola partikularrak emateko, euskaraz dakiena. Tel.: 943 79 33 91. 19:00etatik aurrera.
- Abenduan zehar alemanierazko eskolak jasoko nituzke. Tel.: 943 79 99 82. Miren.

## MOTORRA

### 23. Saldu

- R11-TSE autoa salgai. Egoera eta prezio onean. Tel.: 943 79 92 70.
- Motorra salgai, Suzuki GS 500 E. Karenatua eta faro bikoitza, 25.000 km. Asegurua maiatza arte. Estrak eta oso egoera onean. Prezioa: 400.000 pta. Tel.: 943 79 59 71. Mikel.
- R5 Turbo Fase 2, salgai. Tel.: 943 20 83 94 edo 600 89 02 45.
- Fiat Ducato furgoneta salgai. Hiru urte ditu, 1.600 kg. ko karga ahalmena eta garaia. Tel.: 943 76 09 12.
- Renault 21 TXE salgai. A/A, E/E, D/D, C/C, remolkatzeko gakoa. 120 cv. Merkea. Tel.: 600 43 78 02. Urtzi.

## DENETARIK

### 26. Saldu

- Bulego altzariak salgai (mahaiak, aulkiak), oso merke. Tel.: 943 79 84 35.
- Ekonomia salgai. Egurra errez ura berotzen du, iturri eta berogailuetakoa. Tel.: 943 76 62 36.
- Akuariuma salgai, osagai guztiekin. 150 litrokoa. Tel.: 649 05 32 08.
- Solarium bat salgai dago, oso gutxi erabilia. Tel.: 943 77 16 54.
- Convert Supreme karro-denda, osagai guztiekin salgai. Tel.: 943 77 13 81. Manuel. 20:00etatik aurrera.
- 42 zenbakiko zeharkaldirako eskiak salgai. Lowa marka; berriak daude. Deitu 943 79 84 04 edo 943 79 27 39 telefonoetara. Andoni.
- Urtebeteko Nintendo 64a salgai. Prezio onean. Tel.: 943 77 04 21.
- Opel Comborentzat, auto gainean trasteak eramateko bi barra salgai. Merke-merke. Tel.: 943 79 15 96. Unai.

- Play Station konsola salgai, 26 joko-ekin eta Game Boy bat, 3 jokorekin. Tel.: 943 79 69 66. Ismael.

- SWR Twelve Bass Combo Celestine markako 100 w. ko anplifikadorea eta Ibañez baxu elektrikoa, dagokion kutxatilarekin batera salgai. Ondo zainduta eta egoera onean. Tel.: 943 79 94 49. Oskar.

### 27. Erosi

- Xoxoa disketxeak ateratako LPak erosten ditut: Lisker, Itoiz, Itziar, etab. Tel.: 943 52 65 77.
- Arropa lehorgailu bat erosiko nuke. Tel.: 943 79 37 68.

### 31. Galdu

- Betaurrekoak galdu ditut Arrasate, Bedoña, Urkulu inguruan. Eskertuko nuke deitzea. Tel.: 606 86 71 97. Gauez deitu.
- Euskaltegiko apunteak eta koarderno bat dituen karpeta beltz bat galdu zaizkit erdialde inguruan. Aurkitu badituzu, deitu mesedez 943 79 99 55 telefonora. Virginia.

### 32. Aurkitu

- Puntuzko txaleko marroi eta grixa aurkitu dut autobus geltokian, Interesatuok jo Abaroara eta Tere Guridiz galdetu.

### 33. Bestelakoak


- Musika talde batek lokala behar du entsaiatzeko. Tel.: 943 79 81 19.
- Reiki II, esku ezartze saioak. Mota guztietako gaixotasunak: estresa, insomnioa, buruko minak, beheraldiak. Tel.: 943 79 82 18. 20:00etatik aurrera.

## HARREMANAK

### 35. Kontaktuak

- Deba Garaiko grafologo batekin harremanetan jarriko ginateke. Tel.: 943 71 25 11.
- Gasteizera arratsaldeko 16:00ak aldera egunero autoz baldin bazoaz, gastuak banatuko nituzke. Tel.: 943 79 58 88. Maite, gauez deitu.
- Bartzelonako telekomunikazio enpresa garrantzitsuak inbertsorea behar du (10 milioitik gora) Tel.: 943 22 51 61. Iñaki.

# S. Carrascal S.L.



## Hemen egindako

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak
- Etabar

*Santamas jai zoriontsuak opa dizkizuegu.*

**Fabrikan erakusketa: Gipuzkoa Etorbidea, 6-1 A. Tel./Faxa: 943 79 01 82**





**A**rgazkian ikusten dituzuen ekitaldi hauek, 1970. hamarkadako Santamas jaietakoak dira. Orduan, Zaldibar pilotalekuaren inguruan egiten ziren Santamasetako ekitaldia guztiak, argazkian erakusten den moduan. Baina horra iritsi aurretik, berriz, Mondragoeko hainbat lekutatik pasatu izan da azoka.

Izan ere, aintzinako ospa-

kizuna da orain Santamas azoka moduan ezagutzen dugun hau. Ez da data zehatzik ezagutzen, baina jakina da antzina San Balerio elizaren inguruan azoka egiten zela. Aldiz, Gipuzkoako Batzar Orokorren aginduz, herrien erdialdeetara aldatu ziren azoka guztiak. Honela, 1351. urtean Beheko Portalean (Portaloian), egiten hasi zen hileroko azoka. Joan den mendean, azoka bi hilabetetik behin egiten hasi zen.

Mende honen hasieran hartu zuen indarra Santamas egunak. Orduan 21, 22 eta 23an ospatzen zen azoka. Baserriak herriko jauntxoek izanik, bertan bizi zirenek errenta ordaindu beharra izaten zuten, Gabonetan egiten zen ordainketa, horrexegatik ospatzen ziren azokak garai horretan, tartean, Mondragoeko Santamas azoka.

Gerora, gerra garaian, bertan behera geratu zen, baina bizi-modua normaldu ahala indar-

tu egin zen berriro ere. Hasieran, egun erdiko jai hartzen zuten langileek. 50. hamarkadan, baina, udalaren eta merkatarien eraginez, jai egun betera luzatu zen. Ahari jokoak, aizkolariak eta mota honetako ekitaldiak antolatzen hasi zen udala.

-----  
**Argazkia:** Ino Calleja  
**Berriemalea:**  
Jose Mari Uranga.

## GANBARA

- Enmarkazioak
- Estiloko markoak
- Laminak
- Arte ederretako materiala
- Arte lanak (margo lanak)

Erguin, 2 behea  
Tel.: 943 77 12 37  
20500 ARRASATE





Milurteko berriak ekarriko dizkigunak

OSTANTZ

ederra

KAJOI

Zorionak eta  
Urte berri on



gurekin ez daudenekin nahiko genituzke bizi



# focus



## 20. urteurrena eta milurtekoaren bukaera ospatzeko

Abenduaren 1etik 31ra bitartean erositako autoek  
urtebeteko mantenimendua dohainik



**ORAIN**

16i - 100 cv  
20i - 130 cv  
TDdi - 75 cv  
TDdi - 90 cv

European bere mailan liderra txoke eta egonkortasunean

DEBAGOIENKO  
KONTZESIONARIO OFIZIALA

 **MUGARRI**



Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE  
Tfnoak.: 943 790744 / 943 790745



ARK